Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
MEDIKUNTZA ETA ERIZAINTZA FAKULTATEA
FACULTAD DE MEDICINA Y ENFERMERÍA

**ERIZAINTZAKO GRADUA GIPUZKOA**
**GRADO EN ENFERMERIA**

**2017/2018 Ikasturtea**

# GENERO INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO OSASUN-HEZKUNTZA PROGRAMA BATEN DISEINUA NERABEENTZAKO

Egilea: Olatz Sarasola Ugalde

Zuzendaria: Josune Zubeldia Etxeberria

**GIPUZKOAKO CAMPUSA**
CAMPUS DE GIPUZKOA
Begiristain doktorea, 105
20014 Donostia
Gipuzkoa
T: 943.018.000
F: 943.017.330

www.ehu.eus/es/medikuntza-eta-erizaintza-fakultatea

**LABURPENA**

**Sarrera:** emakumearen aurkako indarkeria familiako esparru pribatuan mantendu izan da eta historikoki datorren sistema patriarkalari loturik dago. XXI. mendean, ordea, arazo sozialean eta publikoan bilakatu da. Genero indarkeria era askotan azaleratzen da eta multifaktoriala da. Bestalde, emakumearen osasunean eragin kaltegarri ugari sorrarazten ditu; horietatik larriena heriotza izanik. Nerabezaroko harremanekin hasi eta helduaroko portaeren ondorioz mantentzen denez, nerabeei zuzendutako edukiak eta jarduerak oinarri dituen osasun-hezkuntza proiektua egitea proposatu da.

**Helburua:** komunitate bateko nerabeei zuzenduta dagoen genero indarkeriaren prebentziorako osasun-hezkuntza programa bat diseinatzea.

**Metodologia:** osasun-hezkuntzaren helburuari erantzuteko bilaketa bibliografiko bat burutu da PIO egitura jarraituz eta dagozkion DeCS eta MeSH terminoak erabiliz. Ondoren, proiektuaren justifikazioa osatzeko beste bilaketa estrategiko bat gauzatu da. Horretaz gain, web-orrialde eta liburutegietako dokumentuak erabili dira osasun-hezkuntzaren egitura eta saioak garatu ahal izateko.

**Planifikazioa:** 13-16 urte bitarteko gazteei zuzenduriko osasun-hezkuntzaren proiektuak, genero indarkeriaren eta harreman osasuntsuen inguruko ezagutzak, jokaerak eta gaitasunak hobetzea du helburu. Proiektua Urnietako Egape Ikastolan gauzatuko da eta bi aste iraungo ditu. Jarduera ezberdinez osaturiko bost gai landuko dira bost saiotan eta hainbat osasun-agentek parte hartuko dute.

**Ebaluaketa eta jarraipena:** osasun-hezkuntza proiektuaren helburuak, egitura eta prozesua ebaluatuko dira azken saioa amaitu ondoren. Horretarako, bi galdetegi prestatu dira: lehenengoa talde dianari zuzenduta dago eta bigarrena, osasun-agenteei. Horretaz gain, talde dianak osasun hezkuntzaren amaieran duen ezagutza maila baloratzeko kasu praktiko bat prestatu da azken saioaren amaieran burutzeko.

**Ekarpena eta gogoeta pertsonala:** nerabeei bideraturiko osasun-hezkuntza proiektu honetatik abiatuz, genero indarkeriaren prebentzioa lehen-hezkuntzan lantzen hastea beharrezkoa dela ondorioztatu da. Horregatik, osasun-hezkuntza proiektuak lehen-hezkuntzako adin-tarte horietatik abiatzea egokia litzateke.

**AURKIBIDEA**


1. SARRERA .......... 1
  1.1 GENERO INDARKERIA .......... 1
    1.1.1 Genero indarkeria motak .......... 2
    1.1.2 Genero indarkeriaren inguruko teoriak .......... 3
  1.2 GENERO INDARKERIA PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA .......... 4
    1.2.1 Intzidentzia .......... 4
    1.2.2 Garrantzia .......... 6
    1.2.3 Esku hartze ezberdinen eraginkortasuna .......... 6
    1.2.4 Kostua .......... 7
    1.2.5 Arrisku faktoreak .......... 8
2. HELBURUAK .......... 9
3. METODOLOGIA .......... 9
4. OSASUN-HEZKUNTZA PROIEKTUAREN PLANIFIKAZIOA .......... 11
  4.1 Talde diana .......... 11
  4.2 Helburu pedagogikoak .......... 12
  4.3 Eduki pedagogikoak .......... 12
  4.4 Metodologia pedagogikoak .......... 13
  4.5 Osasun-agenteak .......... 13
  4.6 Kronograma .......... 15
  4.7 Jarduera pedagogikoak .......... 16
5. OSASUN-HEZKUNTZA PROIEKTUAREN EBALUAKETA ETA JARRAIPENA .......... 25
6. EKARPENA ETA GOGOETA PERTSONALA .......... 25
7. BIBLIOGRAFIA .......... 26
ERANSKINAK .......... 32
  1. Eranskina .......... 32
  2. Eranskina .......... 33
  3. Eranskina .......... 36
  4. Eranskina .......... 37
  5. Eranskina .......... 38
  6. Eranskina .......... 39
  7. Eranskina .......... 39
  8. Eranskina .......... 40
  9. Eranskina .......... 43
  10. Eranskina .......... 45
  11. Eranskina .......... 48
  12. Eranskina .......... 49

13. Eranskina ........ 51
14. Eranskina ........ 53
15. Eranskina ........ 60
16. Eranskina ........ 72
17. Eranskina ........ 80
18. Eranskina ........ 86
19. Eranskina ........ 89
20. Eranskina ........ 91
21. Eranskina ........ 93

**GRAFIKOEN, TAULEN eta IRUDIEN AURKIBIDEA**

**1. Taula:** elementuak kontuan hartuz indarkeria motak, ezaugarriak eta adierazpenak.3
***2*. Taula:** esparrua kontuan hartuz indarkeria motak eta ezaugarriak ........ 3
**3. Taula:** Osakidetzako 2013-2020 urte bitarteko Osasun-Planeko 1.eta 4. lehentasun-arloak........ 7
**4. Taula:** 2011. Urterako aurreikusitako aurrekontua hiru ardatzetan sailkaturik........ 8
**5. Taula:** genero-indarkeriaren arrisku faktoreak eta hauen ezaugarriak ........ 9
**6. Taula:** PIO egitura jarraituz, erabili diren deskriptoreak eta hitz gakoak......... 10
**7. Taula:** taldeko osasun-hezkuntzako metodoak, teknikak eta azalpenak........ 13
**8. Taula:** osasun-hezkuntzako saioak beharreko xehetasunekin zehaztua........ 15
**9. Taula:** 1.gaiko jardueren izenak, azalpenak, teknika eta iraupena........ 17
**10. Taula:** 2. Gaiko jardueren izenak, azalpenak, teknikak eta iraupena ........ 20
**11. Taula:** 3. gaiko jardueren izenak, azalpenak, teknikak eta iraupena ........ 21
**12. Taula:** 4.gaiko jardueren izenak, azalpenak, teknikak eta iraupena ........ 23
**13. Taula:** 5. Gaiko jardueren izenak, azalpenak, teknikak eta iraupena ........ 24
**14. Taula:** osasun-hezkuntza proiektuaren ebaluazioa burutzeko kontutan izango diren alderdiak........ 25

**1. Grafikoa:** 2010-2016 urte bitartean, EAEko indarkeria kasuen intzidentzia, indarkeria motaren arabera.. ........ 4
**2. Grafikoa:** 2016. urtean, EAEn indarkeria kasuak ehunekotan, indarkeria motaren arabera. ........ 5
**3. Grafikoa:** 2016. urtean, EAEko indarkeria kasuen intzidentzia, indarkeria mota eta adinaren arabera ........ 5

**1. Irudia:** Talde eragileko eta Osasunaren Tokiko Sareko Ordezkarien irudi grafikoa. 14

## 1. SARRERA

### 1.1 GENERO INDARKERIA

Tradizionalki, historian zehar, genero indarkeria eremu pribatuan gauzatu eta mantendu izan da, isilpean eta ezkutuan (1, 2). Herrialde garatuetan, XXI. mendean, aldiz, arazo sozial eta publiko handienetako bat da. Emakumeei eragiten die, emakume izate hutsagatik; hau da, genero indarkeriaren biktima beti izango da emakumea (1, 2). Bestalde, gertakari unibertsala dela kontsideratzen da edozein adineko, gizarte-mailako, arrazako, ideologiako edo erlijioko emakumeei eragiten dielarik (3).

Historikoki datorren sistema patriarkalarekin zuzenki loturik dago eta jatorria genero-desberdintasunean du (2, 4). Gizartean emakumeak eta gizonak bi mundu ezberdinen partaide dira, non emakumea gizona baino beherago kokatzen den. Hala, bi munduen arteko banaketak izaera normatiboa eta hierarkikoa duela nabarmentzen da (5); maskulinoak femeninoa menderatzen du, mendekotasun harremanak sortuz nahiz emakumearen eskubideak eta askatasunak mugatuz (2).

Gizakiak nortasun maskulinoari eta femeninoari dagozkion rolak, baloreak, sinesmenak, emozioak eta jokabideak sozializazio prozesuari esker barneratzen ditu. Horri esker, pertsonak gizartean parte hartzen ikasten du, bizi den errealitate kulturala hautemanez eta bere nortasuna garatuz (5). Aitzitik, genero arteko rolek egunerokoan elkar eragiten dute genero-estereotipoak mantenduz nahiz indartuz. Azken hauek, aldi berean, emakume eta gizonen arteko bestelakotasunak justifikatzen eta betikotzen dituzte bikote harremanetan indarkeriaren erabilera erraztuz (6).

*Indarkeria* terminoa ikuspegi orokor batetik definituz gero, pertsona batek beste pertsona batekiko duen ekintza suntsitzailea dela esan daiteke. Aitzitik, genero-indarkeriaren ikuspegia hainbat zentzutan definitua izan da (7).

Nazio Batuen Erakundeak (NBEak) emakumearen aurkako indarkeria deuseztatzearen inguruko adierazpena publikatu zuen 1993. urtean. Adierazpen horretako 1.artikuluan, honela definitzen da emakumearen aurkako indarkeria (8): *"cualquier acto de violencia basado en la pertenencia al sexo femenino que tenga o pueda tener como resultado un daño o sufrimiento físico, sexual o psicológico para la mujer, así como las amenazas de tales actos, la coacción o la privación arbitraria de la libertad, tanto si se producen en la vida pública como en la vida privada"*.

Definizioekin jarraituz, Munduko Osasunaren Erakundea (MOEk) bere aldetik, emakumearen aurkako indarkeria lehentasuna duen osasun-arazo publiko garrantzitsua dela eta esku hartze bateratua eskatzen duela azpimarratzen du. Esku hartze horretan,

bai osasunaren eta hezkuntzaren esparruak bai esparru sozialak barne hartzen ditu (9, 10).

Azkenik, Emakumearen Euskal Erakundeak, Emakundek, genero indarkeria, emakumearen bizitzako testuinguru guztietan (familian, lanean, eskolan, komunitatean, politikan, etab.) adierazten den indarkeria estrukturala dela kontsideratzen du. Indarkeria gauzatzen duten gizonak bitarteko fisikoak, hitzezkoak, elektronikoak, keinu bidezkoak, etab. erabiltzen dituzte emakumeari sufrimendu fisikoa, psikologikoa, sexuala nahiz morala sorrarazteko (11).

### 1.1.1 Genero indarkeria motak

Emakumearen aurka gauzatzen den indarkeria hainbat motakoa izan daiteke eta irizpide ezberdinen arabera sailka daiteke. Lan honetan, Emakundek erabilitako bi irizpideren arabera sailkatu dira indarkeria motak (12): emakumearen aurkako indarkeria gauzatzen den elementuak kontuan hartuz *(Ikus* 1. Taula*)* eta emakumearen aurkako indarkeria gauzatzen den esparrua aintzat hartuz *(Ikus* 2. Taula*).*

| INDARKERIA MOTAK | EZAUGARRIAK | ADIERAZPENAK |
|---|---|---|
| **Fisikoa** | Emakumearen osotasunaren edo biziaren aurka gauzatutako edo gauzatu nahi den kalte fisikoari deritzo. Bikoteak edo bikote ohiak gauzatutako indarkeria mota da ezagunena; bere inpaktua emakumearen gorputzean nabarmentzen baita (4, 7, 12, 13) | Zaplaztekoak<br>Bultzadak<br>Kolpeak<br>Erredurak<br>Hozkadak |
| **Psikologikoa** | Emakumearen sufrimendu psikologikoa edo emozionala eragiten dituen ekintzak edo jarrerak dira. Bere baitan hitzezko alderdiak eta aspektu emozionalak hartzen ditu. Beste indarkeria motekin agertu ohi da, baina identifikatzen zailena da (4, 6, 7, 13, 14). | Jelosiak<br>Irainak<br>Mehatxuak<br>Isolamendu soziala<br>Manipulazio afektiboa<br>Barregarri uztea<br>Askatasun-gabetzea<br>Errudun sentiaraztea<br>Autoestimu galera<br>Iritziak deskalifikatzea<br>Gehiegizko kontrola<br>(janzkeran, denboran eta ekintzetan) |
| **Sexu bidezkoa** | Norberaren borondatearen aurka desiratu gabeko edozein sexu-harreman (ukituak, erasoak, koitoa, etab.) izatera behartzean datza. Horren barruan hainbat jokabide bereizi daitezke: agresio, abusu eta eraso sexuala, probokazio sexuala, etab. (6, 7, 12-14). | Bultzadak<br>Kolpeak<br>Zaplaztekoak<br>Jipoiak<br>Harreman sexualen inguruan erabakitzeko aukerarik ez izatea<br>Antisorgailuak ezin erabili izatea<br>Emakumeak nahiak eta desioak ezin espresatu ahal izatea<br>Harreman sexualak izatera behartzea |
| **Soziala** | Biktima isolatzea du oinarri, baliabide sozialak nahiz familiarrak blokeatuz. Jarrera horiek kalte psikologikoa eragiten dute (12, 13). | Jelosiak<br>Desleialtasun susmoak<br>Traizio emozionalak<br>Bikoteari muturreko eskakizuna eskaini beharreko arretarekiko eta denborarekiko. |

| | | |
|---|---|---|
| **Ingurunekoa** | Bikotea beldurtzeko helburuarekin ingurunea kaltetzeko burutzen diren asmo txarreko ekintzak. Indarkeria fisikoa adierazteko beste era bat dela kontsideratzen da. Emakumeak ez ditu ondorio zuzenak jasaten (4, 7, 12). | Objektuak apurtzea<br>Hormak kolpatzea<br>Keinu oldarkorrak egitea<br>Zikintzea eta nahaspilatzea |
| **Ekonomikoa** | Baliabide ekonomikoetan gizonak emakumearekiko duen kontrola da. Indarkeria mota hau ohikoagoa izaten da helduetan; nerabezaroan gertatzea zailagoa izaten da. Izan ere, adin horretan ez da normala izaten gastuak, bizilekua eta ekonomia partekatzea (4, 14). | Bikoteak lan egitea debekatzea<br>Erabaki ekonomikoak bikotearekin ez kontsultatzea.<br>Bikoteak erabiltzen duen dirua kontrolatzea. |

**1. Taula:** elementuak kontuan hartuz indarkeria motak, ezaugarriak eta adierazpenak. Egikizun propioa.

| INDARKERIA MOTAK | EZAUGARRIAK |
|---|---|
| **Bikote edo bikote ohiarena** | Emakumearen bikoteak edo bikote ohiak edota afektibitatea duen edo izan duen pertsonak eragindako indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexu bidezkoa, ekonomikoa eta soziala barne hartzen ditu. |
| **Familiakoa** | Familiako kide batek emakumearen aurka burutzen duen indarkeria fisikoari, psikologikoari, sexu bidezkoari eta ekonomikoari deritzo. Betiere, bikotea edo bikote ohia aintzat hartu gabe, bizikidetza egon edo ez eta gertaera gertatu den eremu fisikoa alde batera utzita. |
| **Eskolakoa edo lanekoa** | Lan edo eskola eremuko gizon batek emakumearen aurka gauzatutako indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexu bidezkoa (eraso sexuala). Lan edo eskola eremuan nahiz kanpoan gauza daiteke, baita lan edo eskola ordutegian nahiz ordutegitik kanpo. |
| **Komunitatekoa** | Gizon batek erlazio sozialen inguruneko emakume bati eragindako indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexuala da. Gizona botere nagusitasunaz baliatzen da indarkeria gauzatzeko. |

**2. Taula:** esparrua kontuan hartuz indarkeria motak eta ezaugarriak. Iturria: (11). Egikizun propioa.

### 1.1.2 Genero indarkeriaren inguruko teoriak

Teoria ezberdinak formulatu dira esparru familiarrean gauzatzen den emakumearen aurkako indarkeria ulertzeko (2). Teoria horien artean paraleloki lotura duten bi teoria nabarmentzen dira: *"La escalada de la violencia"* eta *"El ciclo de la violencia"* (15).*"El ciclo de la violencia"* Leonore Walker orientatzaileak eta antropologoak 1979. urtean formulaturikoa da. Teoria horrek, bikotean gertatzen diren indarkeria egoerak zergatik gertatzen eta mantentzen diren ulertzen laguntzen du. Eskuarki tratu txarrak ez direla jarraiak izaten adierazten du; hau da, eraso aldiak tartekatu egiten direla barealdiekin nahiz maitasun adierazpenekin. Hala, hiru etapa bereizten ditu: tentsioa, erasoa eta damua (15).

*"La escalada de la violencia"* edo indarkeriaren igoaldiari dagokionez, prozesu geldoa eta goranzkoa dela kontsideratzen da, indarkeriaren intentsitatea eta maiztasuna areagotzen doaz denbora aurrera doan heinean. Ildo horri jarraituz indarkeriaren igoaldi prozesuan, erasoen lau maila bereizten dira: eraso psikologikoak, hitzezkoak, fisikoak eta heriotza (2).

## 1.2 GENERO INDARKERIA PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

### 1.2.1 Intzidentzia

EAEn emakumeek jasan duten indarkeria kasuen intzidentzia aztertzeko, Emakundek 2010-2016 urte bitartean jasotako datu estatistikoak aztertu dira. Horrela, datu estatistiko horiek hiru azpi multzoren arabera banatzen dira (11, 16-21):

- Bikoteak edo bikote ohiak gauzatutako indarkeriaren arabera.
- Esparru familiarrean gauzatutako indarkeriaren (bikote edo bikote ohiaren indarkeria izan ezik) arabera.
- Sexu askatasunaren aurkako indarkeria sexualaren arabera.

Jarraian agertzen den grafikoan antzeman daiteke, urte batetik bestera emakumeen aurkako indarkeria kasuen kopuruak gorabehera nabariak jasaten dituela *(Ikus* 1. Grafikoa*)*. Ildo horri jarraituz, indarkeria jasan duten emakumeen kopuru baxuenak 2010. urtekoak direla ikusten da, baina hurrengo lau urteetan gorakada nabarmena ikusi da; hala, indarkeria guztietan jaso diren daturik altuenak 2014. urtekoak dira. Hortik aurrera, indarkeria kasuek ageriko beherakada izan dute (11, 16-21).




**1. Grafikoa:** 2010-2016 urte bitartean, EAEko indarkeria kasuen intzidentzia, indarkeria motaren arabera. Iturria: (11, 16-21). Eginkizun propioa.

Bestalde, 2016. urteari dagokionez, Ertzaintzak 3.774 emakume erregistratu zituen indarkeriaren biktima moduan EAEn. Kasu horien % 74 (2.797 kasu), bikote edo bikote ohiek gauzatua izan zen; hau da, erasotzailearen eta biktimaren artean erlazio harreman bat zegoen edo egon zen. Beste kasuen % 20 (746 kasu), esparru familiarrean gauzatu zen (bikote edo bikote ohiaren indarkeria izan ezik) eta gainerako kasuen % 6 (231 kasu), sexu askatasunaren aurkako indarkeria sexualagatik gauzatu zen (11) *(Ikus* 2. Grafikoa*)*.




**2. Grafikoa:** 2016. urtean, EAEn indarkeria kasuak ehunekotan, indarkeria motaren arabera. Iturria: (11). Eginkizun propioa.

2016. urteko datuak aztertzen jarraituz eta indarkeria jasan duten emakumeen adinari eta indarkeria motari erreparatuz, honakoa ondorioztatzen da (11) (*Ikus* 3. Grafikoa*)*:

- Bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeriaren biktima izan dira: 31-50 urte bitarteko emakumeen % 58. Eremu honetan indarkeria kasu gutxien gertatu diren emakumeen kopurua, aldiz, % 2koa izan da eta adin kaltetua 18 urtetik beherako gazteena (11).
- Esparru familiarrean gauzatutako indarkeriaren biktima izan dira: 50 urtetik gorako emakumeen % 39,5. Eremu honetan indarkeria kasu gutxien jasan duten emakumeen kopurua, aldiz, % 11,55ekoa izan da eta adin kaltetua 18-30 urte bitarteko emakumeena (11).
- Sexu askatasunaren aurkako indarkeria sexualaren ondorioz gertatutako indarkeriaren biktima izan dira: 18 urtetik beherako emakumeen % 33,7. Esparru honetan, indarkeria kasu gutxien jasan duten emakumeen kopurua, aldiz, % 5,19 koa izan da eta adin kaltetua 50 urtetik gorako emakumeena (11).




**3. Grafikoa:** 2016. urtean, EAEko indarkeria kasuen intzidentzia, indarkeria mota eta adinaren arabera. Iturria: (11). Eginkizun propioa.

### 1.2.2 Garrantzia

Genero indarkeriak biktima den emakumearen alor biologikoan, psikologikoan eta sozialean eragiten du. Horrela, aspektu horiei dagozkien ondorioak sorrarazten ditu osasunean. Osasunerako ondoriorik larriena heriotza da, baina ondorio fisikoak, sozialak, psikikoak, sexualak eta ugaltze sistemakoak nahiz seme-alabenganakoak eta bizikideenganakoak ere sorrarazten ditu (22) (*Ikus* 1. Eranskina).

Ondorio fisikoen artean narriadura funtzionala, osasun egoeraren pertzepzio txarragoa, lesioak eta osasuneko baldintza kronikoen okertzea eragiten du, besteak beste. Ondorio sozialei dagokienez bakartze-soziala, lanera ez joatea eta lanpostuaren galera ematen dira. Ondorio psikikoei begiratuz gero depresioa, antsietatea, suizidio saiakerak, elikadura-ohituren asaldurak, loaren asaldurak, etab. antzematen dira (22).

Hiru alderdi horiez gain, emakumearen ugaltze sisteman eta alor sexualean ere ondorio nabariak ditu. Horrela, bortxaketen ondoriozko kalteak (min pelbikoa, dispareunia, desio sexualaren galera, etab.) eta haurdunaldiko tratu txarren ondoriozko arriskuak (abortu mehatxua, baginako hemorragiak, erditze goiztiarra, etab.) nabarmentzen dira (22).

Azkenik, seme-alabenganako eta bizikideenganako ondorioak agertzen dira. Hauen barruan mehatxuzko sentimenduak, ikasteko eta sozializatzeko zailtasunak eta mendekotasun jokabideak hartzea nagusitzen dira, besteak beste (22).

### 1.2.3 Esku hartze ezberdinen eraginkortasuna

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 3.artikuluan aipamena egin ostean, Lan eta Arlo Sozialen Ministerioak publikatu zuen *“Plan Nacional de Sensibilización y Prevención de la Violencia de Género”* izeneko txostenean (24); genero indarkeriaren prebentzioan, interbentzioan eta sentsibilizazio nahiz kontzientziazioan esku hartuko duten oinarrizko hainbat ardatz zehazten dira (23).

Oinarrizko ardatz horien barnean honako zazpi esparru hauek agertzen dira: justizia, segurtasuna, osasungintza, hezkuntza, zerbitzu sozialak, informazioa eta komunikabideak (23).

Bestalde, esku hartze horizontalak aztertzen dituzten zeharkako bost ardatz zehazten dira. Horien artean, ikerkuntza eta ikasketa, profesionalei bideraturiko formazioa eta espezializazioa, elkarteen mobilizazioa, koordinazioa nahiz jarraipena eta ebaluazioa daude (23).

Osasungintza esparruari dagokionez, eginkizun zehatzak ditu genero indarkeriaren prebentzioan (lehen mailako prebentzioan), antzemate goiztiarrean (bigarren mailako prebentzioan) eta diagnostiko ondorengo esku hartzean (hirugarren mailako

prebentzioan) (22). Era horretan, Osakidetzako 2013-2020 urte bitarteko Osasun-Planean genero-indarkeria prebenitzeko bi lehentasun arlo nabarmentzen dira: ekitatea eta erantzukizuna, eta haur eta gazteen osasuna. Horretaz gain, lehentasunei loturiko helburuak eta ekintzak planteatzen dira (25) *(Ikus* 3. Taula*)*:

<table>
<tr><th colspan="2">1. LEHENTASUN ARLOA: ekitatea eta erantzukizuna</th></tr>
<tr><td rowspan="2">Helburua</td><td>1.5 GENERO INDARKERIA</td></tr>
<tr><td>Inplikaturik dauden sektoreen artean erabakiak modu bateratuan hartuz, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta tratamendua sustatu nahi da osasun-zerbitzuetan.</td></tr>
<tr><td>Ekintzak</td><td>1. Emakumeen aurkako indarkeria saihesteko, goiz antzemateko, lantzeko eta jarraitzeko mekanismoak bultzatu.<br>2. Indarkeriaren biktima diren neskato eta emakumeen arretan, osasuneko eta gizarte-osasuneko koordinazioa hobetu.</td></tr>
<tr><th colspan="2">4. LEHENTASUN ARLOA: haur eta gazteen osasuna</th></tr>
<tr><td rowspan="2">Helburua</td><td>4.4 NERABEZAROA ETA GAZTERIA</td></tr>
<tr><td>Gazterian ohitura osasuntsuak hobetzea eta jarrera arriskutsuak murriztea.</td></tr>
<tr><td>Ekintzak</td><td>1. Gazteentzako osasun-kontsulta zehatzak ezartzea, batez ere emakumeentzat honako gaietan: hezkuntza afektibo-sexuala, erasoak, genero indarkeria eta berdinen arteko indarkeria nahiz mendekotasunak.<br>2. Eskolako curriculumean jarrera osasuntsuei (elikadurari, ariketa fisikoari, alkoholari, tabakoari eta mendetasunei, harreman afektibo-sexualei) buruzko kontzeptuen, prozeduren eta jarreren edukiak eta gaitasunak sartzea sustatu.<br>3. Indarkeriaren aurkako, eta batez ere genero-indarkeriaren aurkako, sentsibilizazio eta prebentzio programak garatzea, hezkuntzan eta erkidegoan.</td></tr>
</table>

**3. Taula:** Osakidetzako 2013-2020 urte bitarteko Osasun-Planeko 1.eta 4. lehentasun-arloak. Iturria: (25). Eginkizun propioa.

Bestalde, Emakundek hainbat kanpaina, proiektu eta programa gauzatu ditu gizartea sentsibilizatzeko eta balore aldaketak sustatzeko asmotan; helburua berdintasuna lortzea delarik (*Ikus* 2. Eranskina).

### 1.2.4 Kostua

Aurretik aipatu den moduan, genero indarkeria prebalentzia handiko arazoa da eta osasunarentzat ondorio kaltegarriak ditu. Gainera, izaera errepikakorra du eta koste sanitario eta sozial altua dakar (26).

Egoera horren aurrean, Euskal Gobernuak, genero indarkeriaren aurkako jarduera-plana abian jarri zuen 2011-2013 denboraldian gauzatzeko. Jarduera-plana aurrera eramateko aurreikusita zegoen aurrekontu totala 19.429.742,76 eurokoa zen; urte bakoitzeko 6.476.580,92 euro (3).

Jarduera-plana hiru ardatzen baitan egituratzen da; bakoitzean helburu estrategiko batzuk zehazten direlarik. Helburu horietan, beste helburu eraginkor batzuk zehazten dira garatu behar diren ekintzak eta inplikaturik dauden sailak aintzat hartuz. Hala, ardatz bakoitzari 2011. urterako egokitu zitzaion aurrekontua honakoa da (3) (*Ikus* 4. Taula):

| | AURREIKUSITAKO FINANTZAZIOA |
|---|---|
| **1. ARDATZA** | **4.005.765,52 €** |
| Genero indarkeriaren biktimentzako arretaren zuzendaritza. Horretarako, lau helburu estrategiko zehaztu dira, dagokion helburu eraginkorrekin eta ekintzekin batera. | |
| **2. ARDATZA** | **205.937 €** |
| Koordinazio eta lankidetza instituzionala**.** Horretarako, hiru helburu estrategiko zehaztu dira, dagokion helburu eraginkorrekin eta ekintzekin batera. | |
| **3. ARDATZA** | **2.264,878,4 €** |
| Genero-indarkeriaren sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerkuntza. Horretarako, bi helburu estrategiko zehaztu dira, dagokion helburu eraginkorrekin eta ekintzekin batera. | |
| **2011. URTEKO AURREKONTU TOTALA:** | **6.476.580,92 €** |

**4. Taula:** 2011. Urterako aurreikusitako aurrekontua hiru ardatzetan sailkaturik. Iturria: (3). Eginkizun propioa.

### 1.2.5 Arrisku faktoreak

Emakumearen aurkako indarkeria fenomeno multidimentsionala da; hau da, arrisku faktore ugarik eragiten dute. Hala, bere sorreraren hautematea erlazionaturik dauden faktore edo aldagai ezberdinen identifikazioaren bidez burutzen da. Arrisku faktoreak honako bost mailetan bereizten dira (27) (*Ikus* 5. Taula):

| ARRISKU FAKTOREAK | EZAUGARRIAK |
|---|---|
| **Biktimaren dimentsio pertsonalarekin lotutako arrisku faktoreak** | · Haurtzaroan abusuak ikustea edo jasatea.<br>· Aukera ekonomikoetan mugak.<br>· Bikotearen dependentzia ekonomikoa.<br>· Bikotearen dependentzia afektiboa.<br>· Desgaitasun fisikoa edo mentala.<br>· Alkoholarekiko edo zilegi ez den drogekiko abusu edo dependentzia.<br>· Buruko asalduren agerpena.<br>· Bakartze soziala.<br>· Haurdunaldia.<br>· Bazterturik dauden talde sozialen parte izatea. |
| **Erasotzailearen dimentsio pertsonalarekin lotutako arrisku faktoreak** | · Tratu-txarren aurrekariak edo haurtzaroko indarkeria.<br>· Bulkadak kontrolatzeko arazoak.<br>· Jelosiak.<br>· Alkoholarekiko edo zilegi ez den drogekiko abusu edo dependentzia.<br>· Buruko asalduren agerpena.<br>· Izaera bakartia edo antisoziala. |
| **Esparru familiarrarekin lotutako arrisku faktoreak** | · Tentsio eta gatazka familiarrak.<br>· Harremanaren egoeran aldaketak edo harremanaren berehalako hausturak.<br>· Banaketa eta dibortzioak.<br>· Bikotearen barnean, emakumearen eta gizonaren arteko ezberdintasun ekonomikoak, heziketakoak eta lanekoak.<br>· Arazo ekonomikoak.<br>· Familiaren egoera ekonomikoaren okertzea (Adib: lana galtzea).<br>· Bizilekua landa eremuetan edo eremu bakartietan. |
| **Izaera kulturala duten arrisku faktoreak** | · Eremu patriarkalean oinarritutako genero-rolak.<br>· Gizonek emakumearekiko duten nagusitasun sinesmena.<br>· Emakumearen mendekotasuna indartzen duten jarrerak eta ekintzak.<br>· Familia eremu pribatu moduan eta gizonaren kontrolpean.<br>· Maskulinitate kontzeptuaren jarraipena nagusitasunarekin, ohorearekin eta erasoarekin lotuta. |

| | |
|---|---|
| **Izaera soziala duten arrisku faktoreak** | · Indarkeria maskulinoa onartu eta legezkotzen duten jarrera komunitarioak.<br>· Immigrazioa.<br>· Laguntza zerbitzuen gabezia edo bertan parte hartzeko zailtasuna.<br>· Emakumeetan eta gizonetan berdintasun aukerak bermatzen dituen legeriaren gabezia.<br>· Emakumeak lan munduan sartzeko mugak. |

**5. Taula:** genero-indarkeriaren arrisku faktoreak eta hauen ezaugarriak. Iturria: (27). Eginkizun propioa.

Aurretik aipaturikoa kontuan hartuz, etorkizuneko jarrerak, jokabideak eta pentsamoldeak nerabezarotik aurrera eraikitzen eta finkatzen dira. Gainera, ebidentziak dioenez, genero indarkeria nerabezaroko lehenengo bikote erlazioetan hasten da eta portaera eredu hori helduaroan mantentzen da (5). Horregatik, justifikaturik dago prebentzio ikuspegia duen nerabeei zuzendutako osasun-hezkuntza proiektu bat diseinatzea.

Era horretan, heziketa prozesua nerabezaroaren etaparen hasieran ematen bada, errazagoa izango da emakumearen aurkako indarkeriaren inguruko kontzientziazioa eta sentsibilizazioa lortzea eta barneratzea. Baita, etorkizuneko jokabide desegokiak gutxitzea edota ezabatzea ere.

## 2. HELBURUAK

**Helburu orokorra:** komunitate bateko nerabeei genero indarkeriaren prebentziorako osasun-hezkuntza programa bat diseinatzea.

**Helburu zehatzak:**

- Talde dianaren ezaugarriak zehaztea.
- Helburu metodologikoak planteatzea.
- Eduki pedagogikoak definitzea.
- Metodologia eta jarduera pedagogikoa erabakitzea.
- Osasun-agenteak aukeratzea.
- Baliabideak aurreikustea.
- Ekintzen ebaluaketa eta jarraipena zehaztea.

## 3. METODOLOGIA

Proiektuaren helburu nagusiari erantzuteko, bilaketa bibliografikoa burutu da. Bilaketa estrategikoa errazteko eta aldi berean zehazteko, PIO (Problem, Intervention, Outcomes) egitura erabili da:

- **P**atient (pazientea): emakumearen aurkako indarkeria, nerabea.
- **I**ntervention (esku hartzea): heziketa, osasun-heziketa.
- **O**utcomes (emaitzak): lehen mailako prebentzioa, prebentzioa.

PIO egitura zehaztu ostean, atal bakoitzari dagokion DeCS (*Descriptores en Ciencias de la Salud*) eta MeSH (*Medical Subject Headings*) deskriptoreak, nahiz hitz gakoak identifikatu dira (*Ikus* 6. Taula).

| **PIO** egitura | **DeCS** terminoak | **MeSH** terminoak | **Hitz gakoak** |
|---|---|---|---|
| **P** | Violencia contra la mujer<br>Adolescentes | Violence against women<br>Adolescents | Violencia de genero/ Maltrato a la mujer<br>Adolescentes/ Adolescencia |
| **I** | Educación<br>Educación en salud<br>Atención primaria de salud | Education<br>Health education<br>Primary health care | Educación<br>Educación para la salud<br>Atención primaria de salud<br>Programas de salud |
| **O** | Prevención primaria | Primary prevention<br>Violence prevention | Prevención primaria |

**6. Taula:** PIO egitura jarraituz, erabili diren deskriptoreak eta hitz gakoak. Eginkizun propioa.

Bilaketa bibliografikoa aurrera eramateko, osasun arloko sei datu-base hauek hautatu dira: Cuiden, Medes, Pubmed, Dialnet eta Cochrane Plus. Horiez gain, BVS (Biblioteca Virtual de la Salud) metabilatzailea ere erabili da *(Ikus* 3. Eranskina*)*. Zenbait kasutan artikulu osoak eskuratu ahal izateko Google Academico bilatzaile motorrera jo behar izan da.

Termino ezberdinen arteko elkarketak AND operatzaile boolearraren laguntzaz burutu dira erreferentzia kopuru handiena eta zehatzena lortzeko. Emaitza ugari lortu diren kasuetan, artikuluen izenburuei eta horien laburpenak irakurtzeari lehentasuna eman zaio testu osoak irakurri aurretik. Horretaz gain, datu-baseek eskainitako iragazkiak baliagarriak izan dira bilaketen emaitzak murrizteko eta gaiarekin lotura zuzena duten erreferentziak hautatzeko. Hona hemen datu-baseetan erabili diren iragazkiak:

- BVS: testu osoa eta urte-tartea.
- Cuiden: testu osoa eta urte-tartea.
- Pubmed: testu osoa, urte-tartea, klasea, hizkuntza eta sexua.
- Dialnet: testu osoa, urte-tartea, herrialdea, hizkuntza eta testu-mota.

Justifikazioa osatzeko, informazio zehatzagoa behar izan denez, beste bilaketa estrategia bat burutu da lehen aipaturiko datu-baseetan *(Ikus* 4. Eranskina).

Horretaz gain, gaia jorratzeko baliagarriak diren liburuak eta web-orrietako dokumentuak aztertu dira datu-baseetan lortutako informazioa biribiltzeko asmotan. Web-orrialdeei dagokienez Munduko, Espainiako eta EAEko osasun arloarekin erlazio zuzena duten web-orriak aztertu eta hainbat dokumentu hautatu dira *(Ikus* 5. Eranskina). Liburuen kasuan, EHU/UPVko eta Koldo Mitxelenako liburutegian hiru liburu interesgarri lortu dira *(Ikus* 6. Eranskina).

Bestalde, osasun-hezkuntza proiektua aurrera eramateko, genero indarkeriarekin lotutako eta nerabeei zuzenduriko hainbat dokumentu erabili dira. Dokumentu hauen bilaketa web-orri ezberdinetan burutu da eta honako hauek hautatu dira *(Ikus*

7. *Eranskina).*

Azkenik, osasun-hezkuntza programa batek eduki behar duen egitura bermatzeko zuzendariak helarazitako bi dokumentu erabili dira. Batetik, Nafarroako Gobernuko *"Manual de educación para la salud"* (28) eskuliburua erabili da. Bestetik, komunitate batean gauzatzeko diseinatua egongo denez, Osakidetzako *"Osasuna ikuspegi komunitario batetik lantzeko gida metodologikoa"* (29) erabili dira.

## 4. OSASUN-HEZKUNTZA PROIEKTUAREN PLANIFIKAZIOA

### 4.1 Talde diana

Genero-indarkeriaren ildotik diseinatu den osasun-hezkuntza proiektua 13-16 urte bitarteko nerabeei bideraturik dago. Hau da, talde diana Urnietako Egape Ikastolako 13-16 urte bitarteko ikasleek osatuko dute.

Osasun-hezkuntzaren protagonistak nerabeak izango direnez, etapa horretan ematen diren aldaketen berri izatea garrantzitsua da. Izan ere, nerabezaroa aldaketa fisiologikoak, psikologikoak eta psikosozialak ematen diren bizi-zikloaren etapari deritzo. Etapa honetan zehar sortzen diren bikote harremanak mesedegarriak dira norbanakoaren baloreak, sinesmenak, autonomia eta garapena lortzeko bikotearen eta sexualitatearen esparruan (14).

Gainera, nerabezaroan eraikitzen diren bikote harremanetan itxaropenak, ilusioak fantasiak, beldurrak, etab. eraikitzen joaten dira, baina ideala dena errealitatetik urruntzen hasten den heinean, aurretik eraikitako guztia frustrazioan bilakatzen da (15).

Are gehiago dena, nerabeek arriskuen ikuspegi baikorra dute, horregatik bikotearen tratu txarren aurrean seguru sentitzen direnaren sentsazioa izaten dute. Segurtasunaren pertzepzio horrek, ordea, bikotean gertatzen diren indarkeriaren lehen zeinuak identifikatzea eragozten du (12).

Genero indarkeria pairatzeko arriskuaren pertzepzio faltarekin batera mito erromantiko batzuk daude. Mito horiek, bikotean gertatzen den indarkeria justifikatzen dute, baina aldi berean, gazteek indarkeria harremanak bertan behera uztea zailtzen dute (12).

Proiektua abian jarri aurretik, helburu pedagogikoak talde dianari egokitu ahal izateko, ikasleek landuko dituzten gaien inguruan duten ezagutza maila neurtuko da. Horretarako, *Ad hoc* galdetegi bat sortu da *(Ikus* 8. Eranskina*).*

### 4.2 Helburu pedagogikoak

→ **Helburu nagusia:** Urnietako Egape Ikastolako 13-16 urte bitarteko gazteek, genero indarkeriaren eta harreman osasuntsuen inguruko ezagutzak, jokaerak eta gaitasunak hobetzea.

→ **Helburu zehatzak:** Urnietako Egape Ikastolako 13-16 urte bitarteko gazteek zera lortuko dute osasun-hezkuntza programaren amaierarako:

1. Genero indarkeriarekin erlazionatutako termino zehatzak identifikatzea eta definitzea.
2. Genero indarkeria zer den definitzea.
3. Genero indarkeriaren intzidentzia eta garrantzia identifikatzea.
4. Genero indarkeriaren zikloa eta igoaldia nola gauzatzen den adieraztea.
5. Genero indarkeria motak eta ezaugarriak zeintzuk diren adieraztea eta deskribatzea.
6. Genero indarkeriarekin erlazionatutako arrisku faktoreak zerrendatzea.
7. Maitasun erromantikoari buruzko mitoak eta sinesmenak identifikatzea.
8. Filmek eta kantuek maitasunaren kontzeptuan duten eragina adieraztea.
9. Bikote nerabeen arteko harreman motak identifikatzea.
10. Norberaren eta bikotea izango denaren lehentasunak, baloreak, gaitasun pertsonalak eta limiteak azaltzea.
11. Harreman osasuntsuak eratzeko oinarrizkoak diren baloreak, jarrerak eta jokabide positiboak aditzera ematea.
12. Genero indarkeria kasuen aurrean profesional ezberdinen eskutik dauden baliabideak komunikatzea.

### 4.3 Eduki pedagogikoak

Aurretik formulatu diren helburuak kontutan hartuta, bi asteetan gauzatuko den osasun-hezkuntza proiektua bost saioetan banatuko da eta jorratuko diren edukiak bost gaietan bereiziko dira:

**1. GAIA:** emakumeen eta gizonen arteko berdintasun aukeren sentsibilizazioa.

**2. GAIA:** genero indarkeriaren aspektu orokorrak.

**3. GAIA:** maitasunaren idealismoa.

**4. GAIA:** harreman kaltegarriak identifikatzen eta osasuntsuak eraikitzen.

**5. GAIA:** emakumearen aurkako indarkeriaren aurrean zer egin, nora jo eta nola jokatu.

## 4.4 Metodologia pedagogikoak

Osasun proiektu honetan ikaskuntza esanguratsua bultzatzen duten taldeko hezkuntza prozesuak sustatzeko, metodo eta teknika aktiboen nahiz anitzen erabilpena eskatzen da. Horretarako, kontuan izan behar dira, lortu nahi diren helburuak eta edukiak, baita ikasleen ikaskuntza prozesuak eta ereduak ere (28).

Ildo honi jarraituz, diseinatu den osasun-hezkuntza programan landu diren taldeko ikaskuntza metodoak eta teknikak sailkaturik ageri dira ondorengo taulan (28) *(7. Taula).*

Aipaturiko teknika motez gain, harremanei bideraturiko teknikak ere gauzatuko dira saio guztietan. Teknika horien artean harrera, aurkezpena, kontratua eta azken agurra nabarmentzen dira. Izan ere, ikasleen eta osasun-agenteen arteko elkartzea errazten dute; ikasleen motibazioa eta inplikazioa sustatzen laguntzen dutelarik (28). Era honetan, errazagoa izango da segurtasun eta konfiantzako lan-giroa lortzea.

| TALDEKO METODOAK ETA TEKNIKAK | IKASKUNTZA PROZESUA | TEKNIKA MOTAK |
|---|---|---|
| **Ikerketa-teknikak** | Jarduera edo gai berri baten hasieran erabiltzen dira gehienbat. Taldeari espresatzen eta antolatzen laguntzen dio: esperientziak, bizipenak, sinesmenak, aurreiritziak, etab. | Ideia zaparrada<br>Osatu gabeko galdetegia<br>Galdetegi irekia/ itxia |
| **Esposizio-teknikak** | Informazioa, ezagutzak, ereduak eta teoriak berrantolatzeko, transmititzeko eta kontrastatzeko erabilgarriak dira. | Idatzia eztabaidarekin<br>Bideoa eztabaidarekin |
| **Hausnarketa-teknikak** | Kausak, erlazionatutako faktoreak, errealitatea, sentimenduak, jokabideak, etab. hausnartzeko erabiltzen dira. | Kasuak<br>Testuen analisia<br>Ariketak |
| **Gaitasun-teknikak** | Gaitasun konkretuetan garatzeko edota trebatzeko baliagarriak dira. | Simulazio eraginkorra |

**7. Taula:** taldeko osasun-hezkuntzako metodoak, teknikak eta azalpenak. Iturria: (28). Eginkizun propioa.

## 4.5 Osasun-agenteak

Lehenik eta behin, osasun-hezkuntzaren gidari izango den erreferentziako pertsona bat egotea komeni denez (29); programa honen diseinatzailea izango da, erizaina, osasun-hezkuntza proiektuaren buru.

Osasun-hezkuntza programa martxan jartzeko, mesedegarria da lantalde murriztu eta zehatz baten parte hartzea eskatzea (29). Horretarako, erizainak Urnietako Talde Eragileari (TEri) proiektua aurkeztuko dio eta hauen bidez Osasunerako Tokiko Sareko (OTSko) ordezkariekin harremanetan jarriko da. Azkenik, osasun-hezkuntzan esku hartuko duten osasun-agenteak hautatuko ditu.

TE hasiera batean hiru erakundeetako ordezkariez osaturik dago: Udala, Osasun Publikoa eta Osakidetza. Behin TErekin kontaktua eginda, eta programa aurkeztu ondoren, ikerketa alor honi dagokion (hezkuntza alorra, gizarte zerbitzuak eta udaltzaingoa) OTSko ordezkariekin harremanetan jarriko da erizaina (*Ikus* 1. Irudia). Bere asmoak jakinaraziko dizkio eta osasun-hezkuntza proiektuan esku hartzeko proposamena egingo die ordezkariei.

Aurretik aipaturiko guztia aintzat hartuz, osasun-hezkuntza proiektuan osasun-agente moduan parte hartuko duten honako ordezkariak proposatzen dira: erizaina (ni neu), Egape Ikastolako orientatzailea, Udaleko gizarte laguntzailea eta udaltzaingoko ordezkari bat.




**1. Irudia:** Talde eragileko eta Osasunaren Tokiko Sareko Ordezkarien irudi grafikoa. Iturria: (29). Eginkizun propioa.

## 4.6 Kronograma

| | DATAK ORDUTEGIA | LEKUA | EDUKIAK | JARDUERAK | IRAUPENA | OSASUN-AGENTEAK | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1. SAIOA** | 2018/05/07<br>ASTELEHENA<br><br>08:30-12:00 | IKASGELA | 1. GAIA | "Itsu-gidaria"<br>"Kontzeptuak elkar-lotzen"<br>"Asmakizuna"<br>"Zure esanetara?"<br>"People"<br>"Rolak eta estereotipoak" | 175 minutu<br>(90' – 85')<br><br>Atsedena 30' | Erizaina<br>Orientatzailea | 25 zapi<br>Mahaiak + aulkiak<br>Arbela<br>Arkatz markatzailea<br>Ordenagailua<br>Proiektorea<br>Lan koadernoa: 1-6 fitxak |
| **2. SAIOA** | 2018/05/09<br>ASTEAZKENA<br><br>08:30-12:00 | IKASGELA | 2. GAIA | "Definitu"<br>"Komunikabideetako berriak"<br>"Zikloa"<br>"Irakiten dagoen igela"<br>"Motak hautematen"<br>"Multidimentsionala" | 180 minutu<br>(90' – 90')<br><br>Atsedena<br>30' | Erizaina<br>Orientatzailea | Arbela<br>Arkatz markatzailea<br>Ordenagailua<br>Proiektorea<br>Orri txuriak<br>Lan koadernoa: 7-12 fitxak |
| **3. SAIOA** | 2018/05/11<br>OSTIRALA<br><br>09:30-12:00 | IKASGELA | 3. GAIA | "Bai ala ez"<br>"Filmeko pasarteak"<br>"Kantuz kantu" | 130 minutu<br>(65' – 65')<br><br>Atsedena<br>30' | Erizaina<br>Orientatzailea | Bost Mp4<br>Bost entzungailu<br>Arbela<br>Arkatz markatzailea<br>Ordenagailua<br>Proiektorea<br>Lan koadernoa: 13-15 fitxak |
| **4. SAIOA** | 2018/05/14<br>ASTELEHENA<br><br>09:30-12:00<br>14:00-16:30 | IKASGELA | 4. GAIA | "Maitasuna ala kontrola?"<br>"Eztabaidatu dezagun"<br>"Autoezagutza"<br>"3,2,1…Prest!" | 120 minutu<br>(60´ - 60')<br>Saio bakoitza<br><br>Atsedena 30' | Erizaina<br>Orientatzailea | Arbela<br>Arkatz markatzailea<br>Ordenagailua<br>Proiektorea<br>Lan koadernoa: 16-19 fitxak |
| **5. SAIOA** | 2018/05/16<br>ASTEAZKENA<br><br>08:30-12:00 | KULTUR-ETXEKO ARETOA | 5. GAIA | "Baliabideak ezagutzen"<br>"Baliabideak barneratzen"<br>"Nola jokatu?" | 170 minutu<br>(85' – 85')<br><br>Atsedena 30' | Erizaina<br>Orientatzailea<br>Gizarte laguntzailea<br>Udaltzaingoa | Aulkiak (agente/ ikasle)<br>Mahaiak (agente/ikasle)<br>Arbela<br>Arkatz markatzailea<br>Ordenagailua<br>Proiektorea<br>Lan koadernoa: 20-22 fitxak |

**8. Taula:** osasun-hezkuntzako saioak beharreko xehetasunekin zehaztua. Egingizun propioa.

### 4.7 Jarduera pedagogikoak

**1. GAIA: emakumeen eta gizonen arteko berdintasun aukeren sentsibilizazioa.**

**Helburua**:

- Genero indarkeriarekin erlazionatutako termino zehatzak identifikatzea eta definitzea.

**Edukia:**

Osasun-hezkuntza proiektuan, genero indarkeriaren inguruan landuko diren alor ezberdinak ulertzeko, garrantzitsua da oinarrizko kontzeptu batzuen esanahia jakitea. Horien artean ditugu: berdintasun eza, genero-estereotipoak, genero-rolak, sexismoa, matxismoa, feminismoa eta patriarkatza.

- **Berdintasun eza:** pertsonen kategorizazio hierarkizatuan oinarritutako jokaera diskriminatzailea sexuaren, etniaren, erlijioaren, ideologiaren, klase sozialaren eta orientazio sexualaren arabera (30).
- **Genero-estereotipoak:** aurre ezarrita, sinplifikatuta eta tinko zehaztuta dauden emakumeen eta gizonen ideiak. Emakumeari edertasun, dependentzia eta pasibotasun kontzeptuekin erlazionatzen zaio; gizonari, aldiz, indarrarekin, boterearekin eta handikeriarekin (30).
- **Genero-rolak:** talde edo sistema sozialean maskulinoan edo femeninoan hautematen diren jokabide arauen multzoa da. Jokabide horiek emakumeei eta gizonei ezartzen zaizkie sexu biologikoaren arabera (30, 31).
- **Sexismoa:** emakumeen eta gizonen desberdintasun biologikoek zehaztuta, emakumeak gizonen menpekoak direla adierazten duen teoria. Horren ondorioz, gizonei esleitu zaizkien jokabideen eta baloreen onarpena handiagoa da (30, 31).
- **Matxismoa:** emakumeekiko balio-galera adierazten duten jokabideen multzoa (31).
- **Feminismoa:** emakumeak protagonista diren mugimendu sozial, politiko eta filosofikoa da. Emakumeen askatasuna defendatzen du; gizonen eta emakumeen arteko harreman askeak, bidezkoak eta gogobetegarriak bultzatuz (30).
- **Patriarkatza:** gizonak emakumearekiko boterea izatea baimentzen duen botere hierarkikoaren banaketa. Sistema indibidualista, biolentoa, lehiakorra eta autoritarioa kontsideratzen da (30).

**Proposaturiko jarduerak** *(Ikus* 9. Eranskina, 14. Eranskina*)*:

| JARDUERA | AZALPENA | TEKNIKA | IRAUPENA |
|---|---|---|---|
| **"Itsu-gidaria"** | Ikasleek *Itsuaren* eta *gidariaren* rolak aplikatuko dituzte, konfiantza izanez bata bestearengan. | Elkartzea | 20' |
| **"Kontzeotuak elkar-lotzen"** | Kontzeptu bakoitzari buruz dakitena idatzi eta adibide bat ipiniko dute. | Galdetegia | 35' |
| **"Asmakizuna"** | Sexismoa lantzeko, bideo laburreko asmakizunari erantzun eta eztabaida sortuko da talde handian. | Bideoa eztabaidarekin | 25' |
| **"Zure esanetara?"** | Matxismoaren, feminismoaren eta patriarkatzaren terminoak sakontzeko bideo bat ikusi eta eztabaida sortuko da. | Bideoa eztabaidarekin | 50' |
| **"People"** | Berdintasunaren kontzeptua lantzeko, *People* dantzalekuko horma-irudiaren hausnarketa. | Testuen analisia | 20' |
| **"Rolak eta estereotipoak"** | Genero eta estereotipo rolak jorratzeko ezaugarri pertsonalak, gaitasunak eta erantzukizunak dagokion zutabean (emakume, gizon eta biena) kokatu beharko dituzte. Ondoren, zuzenduko da. | Ariketa | 25' |

**9. Taula:** 1.gaiko jardueren izenak, azalpenak, teknika eta iraupena. Eginkizun propioa.

## 2. GAIA: genero indarkeriaren aspektu orokorrak.

**Helburuak:**

- Genero indarkeria zer den definitzea.
- Genero indarkeriaren intzidentzia eta garrantzia identifikatzea.
- Genero indarkeriaren zikloa eta igoaldia nola gauzatzen den adieraztea.
- Genero indarkeria motak eta ezaugarriak zeintzuk diren adieraztea eta deskribatzea.
- Genero indarkeriarekin erlazionatutako arrisku faktoreak zerrendatzea.

**Edukia:**

**Genero indarkeria**

NBEak honela definitzen du emakumearen aurkako indarkeria (8): *"cualquier acto de violencia basado en la pertenencia al sexo femenino que tenga o pueda tener como resultado un daño o sufrimiento físico, sexual o psicológico para la mujer, así como las amenazas de tales actos, la coacción o la privación arbitraria de la libertad, tanto si se producen en la vida pública como en la vida privada".*

**Genero indarkeriaren intzidentzia**

2016. urteko datuak erreparatuz gero, bikoteak edo bikote ohiak gauzatutako indarkeria izan da gehien eman dena. EAEn Ertzaintzak indarkeria biktima moduan erregistratu zituen 3.774 emakumeetatik % 74, bikote edo bikote ohiek gauzatua izan zen eta adin kaltetuena, 31-50 urte bitarteko emakumeak izan ziren (11).

**Genero indarkeriaren garrantzia**

Genero-indarkeriak emakumearen alor biologikoan, psikologikoan eta sozialean eragiten du. Hala, ondorio fisikoak, sozialak, psikikoak, sexualak eta ugaltze sistemakoak nahiz seme-alabenganakoak eta bizikideenganakoak sorrarazten ditu (22).

**Genero indarkeriaren zikloa eta igoaldia**

Teoria ezberdinak formulatu dira esparru familiarrean gauzatzen den emakumearen aurkako indarkeria ulertzeko (2). Teoria horien artean paraleloki lotura duten bi teoria nabarmentzen dira: *"La escalada de la violencia"* eta *"El ciclo de la violencia"* (15).

Indarkeriaren zikloaren prozesuan erasotzailea eta biktimak jarduten duten era islatzen da (2). Indarkeriaren zikloa aldatu egiten da intentsitatearen, iraupenaren eta maiztasunaren arabera. Horrela, hiru etapa bereizten dira: tentsioaren metatzea, agresioa edo erasoa eta damua edo *"luna de miel"* (15).

**1. ETAPA: Tentsioaren metatzea.** Lehenengo etapa hau denbora luzean zehar manten daiteke. Gizonak emakumearekiko ekintza eta jarrera desegokiak gauzatzen ditu, bikotearen arteko gatazkak sorraraziz. Gizonaren liskarrak areagotuz doaz arrazoi ulergarririk eta zentzuzkorik gabe emakumearentzat. Gainera, erasotzaileak indarkeria ahozko eran adierazten du, baina, baita era fisikoan ere. Egoera horietan biktimak bikotea lasaitzeko jarrera hartzen du atsegin eginez eta traba egiten diona saihestuz. Era horretan, emakumeak gatazkak saihestu eta bikotea kontrolatuko duen ustea izaten du (15).

**2. ETAPA: Agresioa edo erasoa.** Bigarren etapa hau denetan motzena izaten da, baina lesio larrienak jasateko aukera handiena duena. Indarkeria jokabideak gauzatzen hasten da erasotzailea eraso fisikoak, psikologikoak eta sexu bidezkoak burutuz. Emakumeak etapa hau gizonaren haserrea kontroletik kanpo dagoela esanez justifikatzen du; ez du errealitatea ikusi nahi eta jasan dituen erasoak eta zauriak txikiagotzen ditu. Gertatu zaion egoera ukatzera hel daiteke. Fase honetan emakumeak laguntza eskatu edo gizona salatu ohi du (15).

**3. ETAPA: Damua edo "luna de miel".** Azken etapa honetan erasotzailea damutu egiten da eta barkamena eskatzen du. Bikote harremana apur ez dadin, manipulazio estrategia afektiboak (opariak, laztanak eta promesak) erabiltzen ditu. Hala ere, emakumeari leporatzen dio gatazken errua, bere erantzukizuna ukatuz. Emakumeak egoera aldatuko denaren esperantza izaten du eta horregatik, askotan, salaketa kentzen du edo gertukoengatik jasotako laguntza baztertzen du (15).

*"La escalada de la violencia"* edo indarkeriaren igoaldi prozesua, aldiz, lau mailatan bereizten da. Hasteko, erasotzailea tratu txar psikologikoak eta hitzezkoak oinarri dituen jokabideak (gehiegizko zaintza eta babesa, jokabide murriztaileak eta kontrolatzaileak, esaterako) gauzatzen hasten da; eta horren ondorioz, emakumeak bere buruarekiko duen segurtasuna eta konfiantza gutxitzen doaz, baita erreakzionatzeko duen gaitasuna ere. Horretaz gain, emakumea bere autonomia galtzen doa, isolatuz eta dependentzia egoera batean sartuz (2).

Indarkeria jokabide horiek handitzen doazen heinean, eraso fisikoak hasten dira eta luzaroan iraun dezakete. Denbora horretan zehar, emakumearen autoestimua, segurtasun pertsonala eta erreferentzia sozialak desagertzen doaz. Emakumea ez da gai bizi duen egoera ulertzeko, ezta duen arriskuaz jabetzeko ere (2).

Azkena heltzen heriotza izaten da; aipaturiko tratu txar horien osteko muturreko egoera eta atzera bueltarik ez duena (2).

**Genero indarkeria motak**

Emakundek erabilitako bi irizpideren arabera sailkatu dira indarkeria motak (4, 6, 7, 12-14):

- Emakumearen aurkako indarkeria gauzatzen den elementuak kontuan hartuz; indarkeria fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, ingurunekoa, sexuala eta soziala.
- Emakumearen aurkako indarkeria gauzatzen den esparrua aintzat hartuz; bikote edo bikote ohiarena, komunitatekoa, eskolakoa edo lanekoa eta familiakoa.

**Genero indarkeriaren arrisku faktoreak**

Emakumearen aurkako indarkeriak era multidimentsionalean eragiten du. Horrela, bost arrisku faktore bereizi daitezke: biktimaren dimentsio pertsonalarekin lotutako arrisku faktoreak, erasotzailearen dimentsio pertsonalarekin lotutako arrisku faktoreak, esparru familiarrarekin lotutako arrisku faktoreak, izaera kulturala duten arrisku faktoreak eta izaera soziala duten arrisku faktoreak (27).

**Proposaturiko jarduerak** *(Ikus* 10. Eranskina, 15. Eranskina)**:**

| JARDUERA | AZALPENA | TEKNIKA | IRAUPENA |
|---|---|---|---|
| **"Definitu"** | Talde txikietan genero-indarkeria entzunda bururatzen zaiena idatziko dute. Ondoren talde handian definizioa osatuko da. | Ideia zaparrada | 20' |
| **"Komunikabideetako berriak"** | Genero indarkeriarekin lotutako albisteak eztabaidatuko dituzte gaiak duen intzidentzia eta garrantzia identifikatzeko. | Idatzia eztabaidarekin | 45' |
| **"Zikloa"** | Indarkeriaren zikloaren etapak eta hauen ezaugarriak aztertuko dituzte. | Idatzia eztabaidarekin | 30' |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **“Irakiten dagoen igela”** | Indarkeriaren igoaldia irudikatzen duen irudia eta bideoa ikusiz, ikusitakoa eztabaidatuko dute. | Bideoa/Irudia eztabaidarekin | 35’ |
| **“Motak hautematen”** | Bi gurutzegrama osatu beharko dituzte genero-indarkeria moten ezaugarriak irakurriz. | Ariketa | 25’ |
| **“Multidimentsionala”** | Arrisku faktore bat aukeratu eta hautapenaren arrazoia justifikatu beharko dute. | Ariketa | 25’ |

**10. Taula:** 2. Gaiko jardueren izenak, azalpenak, teknikak eta iraupena. Egimkizun propioa.

### 3. GAIA: maitasunaren idealismoa.

### Helburuak:

- Maitasun erromantikoari buruzko mitoak eta sinesmenak identifikatzea.
- Filmek eta kantuek maitasunaren kontzeptuan duten eragina adieraztea.

### Edukia:

Pertsonak ez dira jaiotzen maitatzen jakinez, ikaskuntza prozesuan maitasunaren eredu jakinak ikasten lortzen da. Kultura bakoitzak maitasunaren eredu bat adierazten du; horregatik, ez dago maitasun eredu unibertsalik. Hemengo kulturaren kasuan, gailentzen eta errepikatzen den maitasun eredua maitasun erromantikoarena da (31).

Ideal erromantiko hori hemengo kulturaren parte diren filmetan, telesailetan, kantuetan, eleberrietan, harremanetan, familian, jokoetan, eta abarretan islatzen da eta maitatzeko moduan eragiten du. Hau da, maitemintzeak duen benetako esanahitik aldentzen dute. Gainera, maitasunaren inguruko sinesmenak garatzearen eragile da; harreman osasuntsuak ezartzea zaildu, emozioak menderatu eta jokabide oldarkorrak onartzea eta normalizatzea eragiten baitu (31, 32).

Bestalde, maitasun erromantikoaren mitoak daude. Horien artean ditugu:

- **Jelosiak/jabetza:** jende askoren ustetan jelosiak maitasunaren adierazgarri dira, baina ez da hala. Mesfidantzatik eta beldurretik sortzen dira eta jokabide berekoiak eta bidegabeak justifikatzeko erabiltzen dira askotan (32, 33).
- **“Mi media naranja”:** mito honek pertsonak osatugabeak direla adierazten du. Pertsona osoa eta zoriontsua izateko beste pertsona baten beharra (bikotearena) azaltzen du. Gainera, menpeko bihurtzen du pertsona, autonomia galduz (31).
- **Maitasun ahalguztiduna:** bikotearen arteko benetako maitasunak arazo guztiei aurre egiteko gaitasuna duela adierazten du. Mito honen ondorioz, ordea, aldaketa eskatzen duten jokabide batzuen onarpena eta normalizazioa gertatzen da, gatazken aurre egite negatiboa sorraraziz (32).

- **Bikotea eta familiarekiko sakrifizioa:** mito honen arabera emakumeak etengabe sakrifikatu behar du bikotearen maitasuna eta batasun familiarra mantentzeko, baina ez da horrela. Ardura hori partekatua da (33).
- **“Gehien maite zaituenak negar egitea eragingo dizu”:** maitatzea ez dator bat min egin edo sufriaraztearekin. Maite zaituenak ondo zaindu eta tratatuko zaitu, hori egiten ez badu maite ez zaituen edo maitatzen ez dakien seinale (31, 33).
- **Bikotearekiko erabateko dedikazioa:** emakumeak bere familiari, lagunei, zaletasunei, ametsei eta abarri uko egiten die bikote harremanean sakrifikatuz. Maitasunak, ordea, norberaren bizitzari gehituko zaion zerbait izan behar du, ordura arte edukitakoa ukatu beharrik izan gabe (33).
- **Maitasunak dena barkatzen du:** bikote baten artean maitasuna egon arren, badaude barkaezinak diren egoerak edota jokabideak, baita maitasunarekin bat ez datozenak ere (33).

**Proposaturiko jarduerak** (*Ikus* 11. Eranskina, 16. Eranskina)**:**

| JARDUERA | AZALPENA | TEKNIKA | IRAUPENA |
|---|---|---|---|
| **“Bai ala ez”** | WhatsApp-eko elkarrizketa bateko esaldiak maitasunaren mitoak diren ala ez adieraziko dute. | Galdetegia | 25’ |
| **“Filmeko pasarteak”** | Maitasun erromantikoa islatzen den bideoa ikusi eta pasartea irakurri ostean, adibideak adieraziko dituzte. Ondoren, eztabaida talde handian. | Bideoa/Idatzia eztabaidarekin | 45’ |
| **“Kantuz kantu”** | Talde bakoitzak kantu bat aztertuko du; ondoren, ordezkariek hausnartutakoa itzuliko diote talde handiari. | Testuaren analisia | 60’ |

**11. Taula:** 3. gaiko jardueren izenak, azalpenak, teknikak eta iraupena. Egikizun propioa.

### 4. GAIA: harreman kaltegarriak identifikatzen eta osasuntsuak eraikitzen.

**Helburuak:**

- Bikote nerabeen arteko harreman motak identifikatzea.
- Norberaren eta bikotea izango denaren lehentasunak, baloreak, gaitasun pertsonalak eta limiteak azaltzea.
- Harreman osasuntsuak eratzeko oinarrizkoak diren baloreak, jarrerak eta jokabide positiboak aditzera ematea.

**Edukia:**

Bikote harremanak bi eratara sailkatu daitezke: batetik kontrolean, boterean, desberdintasunean nahiz indarkerian oinarritutako harremanak daude. Beste alde batetik, ordea, maitasunaren, berdintasunaren, errespetuaren eta konfiantzaren euskarri diren harremanak daude (30).

Lehenengo harreman motak honako ezaugarri hauek ditu, besteak beste:

- Erraztasunarekin haserretzen da, oihukatuz eta irainduz.
- Manipulatzen saiatzen da.
- Gatazka momentuetan azken hitza berak eduki behar du; bikotearen iritzia ez du kontuan hartzen.
- Bikotea agertzen den bideo laburrak sarean zintzilikatzearekin mehatxatzen du.
- Haserretzen denean, mehatxatu eta kolpatu egiten du bikotea.
- Arropa jakin batzuk jaztea debekatzen dio bikoteari.
- Mugikorra ikusi nahi izatea, bere bikotea norekin hitz egiten ari den jakiteko.
- Ideia matxistak izatea.
- Sexu-harremanak izatean, berak erabakitzea non eta nola burutu.
- Bere interesak eta desioak jarraitzea, bikotearenak errespetatu gabe.

Bigarren harreman motak, aldiz, honako ezaugarri hauek ditu, besteak beste:

- Gatazkak izan arren, harremana maitasunean, laguntasunean, errespetuan, berdintasunean oinarritzen da.
- Sexu-harremanak noiz, non eta nola bien artean erabakitzen da.
- Konfiantza transmititzen dio bikoteari eta harremanari.
- Bikotearen proiektuak eta erabakiak baloratzen ditu; errespetatuz eta lagunduz.
- Bikotearen harreman sozialak errespetatzen ditu.
- Bikotearen askatasuna eta erabakitzeko gaitasuna errespetatzen ditu.
- Gatazka uneetan komunikazioaren bidez irtenbidea bilatzen zaie arazoei.
- Bikotearen iritziak, nahiak, jarduerak aintzat hartzen ditu.
- Hanka sartzeak gertatzean onartzen du.

Eduki nahi den harreman mota hautatzeko lagungarri da norberak bere burua ezagutzea. Norbere burua ezagutzea autoezagutza da; hau da, pertsonaren osotasunean oinarritutako ebaluazio pertsonala eta zehaztua. Norberaren autoezagutza laguntza handikoa den arren, ez da erraza lortzen. Hala ere, lortu ahal izateko honako galdera hauek formulatzea lagungarria da: *zein naiz? Zer izan nahi dut? Zein gauza dira garrantzitsuak niretzat? Zein ideia, balore eta sinesmen mantendu nahi ditut?* (32).

Era honetan, norberak bere burua gehiago ezagutzen duen neurrian seguruago sentituko da eta zer nahi duen edo komeni zion hobeto jakingo du. Gainera, horrek guztiak, komeni zaion bikotearen hautapenean lagunduko du (32).

Beste alde batetik, autoestima dago. Pertsona bakoitzak autoestima jakina du, azken hau altua edo baxua izan daitekeelarik, denboran zehar aldatuz. Bere buruaz irudi

xumea duen pertsonak autoestima baxua izango du, oso gutxi baloratuz bere burua, eta horren ondorioz, segurtasun eza, eta ahultasuna nagusituko dira. Momentu horietan sortzen da harreman kaltegarriak edukitzeko arriskua. Izan ere, norberak bere burua maitatzen ez badu beste batek bere nahiak beregain ezartzeko aukera handiagoa izango da, menderatzea erraztasun bilakatuko da eta ondorioz, ezin izango da zoriontsu izan (32).

Bikote harreman bat osasuntsua izan dadin, erlazioa osatzen duten pertsonen artean maitasuna, errespetua eta komunikazioa dagoelako da. Hori bai, bakoitzaren autonomiari, lehentasunei eta zaletasunei uko egin gabe (32).

Hala, harreman osasuntsua eraiki ahal izateko honako alderdi hauek ezin dira errefusatu (32): errespetua, askatasuna, independentzia, autonomia, enpatia, berdintasuna, erantzunkidetasuna, komunikazioa, ekitatea, erakarpena, pasioa, maitasuna, etab.

**Proposaturiko jarduerak** (*Ikus* 12. Eranskina,17. Eranskina):

| JARDUERA | AZALPENA | TEKNIKA | IRAUPENA |
|---|---|---|---|
| **"Maitasuna ala kontrola?"** | Galdetegi itxi baten bidez esaldi bakoitza maitasuna ala kontrola den adieraziko dute. | Galdetegia | 30' |
| **"Eztabaidatu dezagun"** | Bikote nerabeen arteko kasu batzuk formulatuko zaizkie ikasleei ageri diren harreman motak hausnartzeko. | Kasuak | 65' |
| **"Autoezagutza"** | Autoezagutzaren ideia lantzeko hausnarketarako galdera batzuei erantzun beharko dituzte. | Ariketa | 60' |
| **"3,2,1…Prest!"** | Harreman osasuntsua islatzen duen errezeta osasuntsua eratuko dute horretarako dituzten gaitasunak adieraziz. | Simulazio eraginkorra | 90' |

**12. Taula:** 4.gaiko jardueren izenak, azalpenak, teknikak eta iraupena. Egінkizun propioa.

### 5. GAIA: emakumearen aurkako indarkeriaren aurrean zer egin, nora jo eta nola jokatu.

**Helburuak:**

- Genero indarkeria kasuen aurrean profesional ezberdinen eskutik dauden baliabideak komunikatzea.

**Edukia:**

**Zer egin emakumeen aurkako indarkeria sufrituz gero edo susmo hori izanez gero** (34)**?**

- **Arriskuan egonda:** ☎ 112/ 016 zenbakira deitu. Ertzaintza berehala joango da beharrezko babes-neurriak abiaraztera. Hau da, biktimak nahi izanez gero: abokatu bati deituko dio, gizarte-zerbitzuekin harremanetan jarriko da, GPS zerbitzua duen mugikor bat eskainiko dio, etab.

- **Entzumen/mintzamen urritasun kasuetan:**

  SMS bidali 600 123 112 zenbakira “genero indarkeria” jarrita. Biktimak nor den eta non dagoen adierazi beharko du. Bestela, *112-SOS deiak* aplikazio berria erabili.

- **Lesio fisiko/psikikoren bat sufrituz gero edo horren susmoa izanez gero:**

  **OSASUN-ZENTROA edo OSPITALEA.** ⊕ Mediku-txostenaren kopia bat eskatuko du biktimak eta dagokion epaitegira bidaliko dute. Horretaz gain, biktimari harremanetan jarriko diote gizarte-zerbitzuekin. Biktima arriskuan egonez gero, Ertzaintza bertaratuko da.

- **Profesionalekin hitz egiteko beharra izanez gero** (berehala, konfidentzialki eta anonimotasunean): 900 840 111 (24h) ☎ telefonora deitu Informazioa behar izanez gero, beldurtua egonez gero, zalantzak izanez gero, norbaitek entzutea nahi izanez gero, erabakiak hartu nahi izanez gero, etab.

- **Aurrez aurreko arreta behar izanez gero:** hitzordua eskatu Biktimari Laguntzeko Zerbitzuan. Horretarako, ☎ 900 100 928 (Donostia) telefonora deitu. Honakoa jasotzen dute biktimek: orientabidea salaketa jarri baino lehen, laguntza psikologikoa eta soziala, osasun edo gizarte zerbitzu egokietara zuzendu, laguntza ematea prozesu guztietan, etab.

- **Aurrez aurreko arreta behar izanez gero:** hitzordua eskatu Udaletxeko Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuarekin. Laguntza eta aholkua ematen dute, informazioa helarazten dute, zerbitzu espezializatuagoetara bideratzen dute, baita beste baliabide batzuetara ere.

- **Laguntzeko elkarteen laguntza nahi izanez gero:** Emakunderekin harremanetan jarri telefonoz, posta elektronikoz edo web-orrialde bidez. ☎ 945 016 700.

  emakunde@euskadi.eus. www.emakunde.euskadi.eus

**Proposaturiko jarduerak** (*Ikus* 13. Eranskina, 18. Eranskina):

| JARDUERA | AZALPENA | TEKNIKA | IRAUPENA |
|---|---|---|---|
| **“Baliabideak ezagutzen”.** | Indarkeria kasu baten aurrean egonda nora joko luketen galdetuko zaie. | Ideia zaparrada | 20’ |
| **“Baliabideak barneratzen”.** | Gidaliburu bat irakurri ostean, talde txikietan eztabaidatu eta ondoren talde handira helarazi agenteen parte hartzea bultzatuz. | Idatzia eztabaidarekin | 90’ |
| **“Nola jokatu?”** | Talde txikietan helarazitako kasuak irakurri eta hausnartu. Ondoren, erantzunak talde handian landu. | Kasuak | 60’ |

**13. Taula:** 5. Gaiko jardueren izenak, azalpenak, teknikak eta iraupena. Egínkizun propioa.

## 5. OSASUN-HEZKUNTZA PROIEKTUAREN EBALUAKETA ETA JARRAIPENA

Ebaluazio prozesuaren baitan hainbat alderdi kontuan izan behar dira. Hala, jarraian azaltzen den taulan datoz zehazturik, osasun-hezkuntza programa honetan zer, nork, noiz eta nola ebaluatuko den (28) *(Ikus* 14.Taula):

| EBALUATUKO DENA | | EBALUATUKO DUEN AGENTEA | NOLA EBALUATUKO DA | NOIZ EBALUATUKO DA |
|---|---|---|---|---|
| **EGITURA** | Egokitzapena baliabideetara | Talde dianak Osasun-agenteek | Talde dianarentzako galdetegiaren bidez Osasun-agenteentzako galdetegiaren bidez | Osasun-hezkuntzaren azkeneko saioa amaitu ondoren |
| **PROZESUA** | Ekintzen egokitasuna | Talde dianak Osasun-agenteek | Talde dianarentzako galdetegiaren bidez Osasun-agenteentzako galdetegiaren bidez | Osasun-hezkuntzaren azkeneko saioa amaitu ondoren |
| | Ekintzak egitea | Osasun-agenteek | Talde dianarentzako galdetegiaren bidez Osasun-agenteentzako galdetegiaren bidez | Osasun-hezkuntzaren azkeneko saioa amaitu ondoren |
| **HELBURUAK** | Helburu pedagogikoak | Osasun-agenteek | Osasun-agenteentzako galdetegiaren bidez | Osasun-hezkuntzaren azkeneko saioa amaitu ondoren |

**14. Taula:** osasun-hezkuntza proiektuaren ebaluazioa burutzeko kontutan izango diren alderdiak. Iturria:(28). Eginkizun propioa.

Beraz, guztira, bi galdetegi prestatu dira. Batetik, osasun-hezkuntzaren ebaluazio orokor bat egiteko talde dianari zuzendutako galdetegia; eta bestetik, osasun-agenteei zuzendutako galdetegia *(Ikus* 19. Eranskina, 20. Eranskina*)*.

Azkenik, osasun-hezkuntzan ikasleek lortutako ezagutzak baloratzeko beste galdetegi bat prestatu da. Azken hau, landutako gai gehienak barne hartzen dituen kasu praktiko batean oinarritzen da eta azkeneko saioaren amaieran gauzatuko da (*Ikus* 21. Eranskina).

## 6. EKARPENA ETA GOGOETA PERTSONALA

Azken aldian, emakumearen aurkako indarkeria gero eta zeresan handiagoa ematen ari den gaia da. Komunikabideetara jo eta eskuekin kontatzen hasi besterik ez dugu egin behar, gauzatzen diren indarkeria kasu guztiez jabetzeko.

Epe laburrean genero indarkeriaren inguruko informazio anitz eman da, eta honekin lotuta egon daiteke. Iraganean emakumeak jasan duen indarkeria familiako esparru pribatuari zegokionez, emakumeek biziraun ahal izateko gizonen esanetara egotea zen beraien abagune bakarra. Azken urteetan, ordea, esparru pribatutik arazo publiko nahiz sozialean bilakatu da, eta horrek, indarkeria kasuak hedabideetara azaleratzea eta gizartean hedatzea ekarri du.

Aldaketa horretatik, genero indarkeriaren sentsibilizazioan, antzemate goiztiarrean eta prebentzioan eragingo duten neurriak hartu dira. Argi dago, prebentzio arloa ezinbestekoa dela emakumeek pairatzen dituzten erasoak ekiditeko, baina prebentzioa zein adin taldeetan gauzatzea komeni da? Orain arte, ziur egon naiz adin aproposena nerabezaroa zela eta hortik abiatuta burutu dut osasun-hezkuntza proiektu hau. Hala ere, proiektua amaitzear nagoen honetan lehen hezkuntzako etapa (6-12 urte tartea) etorri zait burura; zergatik ez hasi, prebentzioa adin horretatik aurrera gauzatzen?

Azken finean, etapa horietan jasotzen ditugun bi heziketa nagusietatik (familiatik eta ikastolatik) hainbat kontzeptu azaleratzen dira: etorkizuneko oinarrizko baloreak, lehentasunak, zaletasunak, nahiak eta sinesmenak, besteak beste. Horrek guztiak gure jokabideetan, erabakietan eta harreman motetan eragingo dutela ziurra da. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zait, oinarrizko baloreei eta autoezagutzari garrantzia emateaz gain, adin horietatik aurrera lantzea.

Izan ere, *errespetua* bezalako termino arrunt, baina aldi berean konplexuaren esanahia guztiok dakigun arren, halako kontzeptuen azalpen teorikoa nahiz praktikoa jaso al dugu noizbait? Eta autoezagutza landu dugu? Zer nahi dugun jakiteko gure burua ezagutzea funtsezkoa da, kanpoko inork ez digu esango zer den behar duguna; norberak hauteman beharreko zerbait da.

Hori guztia dela eta, ezinbestekotzat jotzen dut oinarrizko baloreen eta autoezagutzaren kontzeptuak txikitatik lantzea. Horretarako, lehen hezkuntzako etapa hiru adin-tarteetan banatzea (6-8 urte /8-10 urte/10-12 urte) eta bakoitzari dagokion osasun-hezkuntza programak diseinatzea proposatzen dut.

Osasun-hezkuntza horren bidez, bikote-harremanak eratzen hasten direnerako, nerabeek harreman osasuntsuak eraikitzeko izango duten probabilitatea handiagoa izan liteke. Gainera, autoezagutza landu izanak, autoestima handitzen eta norberarengan konfiantza eta segurtasuna izaten lagunduko diete. Era horretan, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan emaitza positiboak ikusiko lirateke.

## 7. BIBLIOGRAFIA

(1) Carrilero S, Martínez JM, Bienert F. Aproximación teórica del profesional enfermero a los dispositivos legales para afrontar la violencia de género. Enferm Global [Internet]. 2012 [kontsulta 2018ko urtarrilak 2];11(27):430-445. Eskuragarri: http://revistas.um.es/eglobal/article/view/155271

(2) Instituto Canario de Igualdad. Consejería de la Presidencia, Justicia e Igualdad del Gobierno de Canarias. Guía para la Atención a Mujeres Víctimas de Violencia de Género [Internet]. 3. ed. ; 2011 [kontsulta 2018ko urtarrilak 23]. Eskuragarri:

http://www.gobiernodecanarias.org/icigualdad/informacion_servicios/servicios_recursos_igualdad/atencion_violencia_genero/

(3) Genero-Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza. I Plan de actuación del Gobierno contra la violencia de género [Internet]. 2011 [kontsulta 2018ko urtarrilak 28]. Eskuragarri: http://www.bizkaia.eus/gizartekintza/Genero_Indarkeria/blt22/documentos/I_plan_c.pdf?hash=a5236c2dd92d997fa4d0e4fa54d5ab49

(4) Escobar A, Quinteros A, Sánchez SB, Tardón B. Manifestaciones de la violencia de género. In: Pérez JM, Montalvo A, koordinatzaileak. Violencia de género: prevención, detección y atención. 1.ed. Madrid: Grupo5; 2011. 65-113or.

(5) Muñiz M, Cuesta P, Monreal C, Povedano A. Violencia de pareja online y offline en la adolescencia: el rol de la soledad y del género. Rev infanc adolesc [Internet]. 2015 [kontsulta 2018ko urtarrilak 2]; (9): 85-97. Eskuragarri: https://polipapers.upv.es/index.php/reinad/article/view/3898/4295

(6) Pérez A, Amado L. Una aproximación a la violencia en el noviazgo. In: García J, zuzendaria. La Violencia de Género en la Adolescencia. Zizur Txikia (Nafarroa): Thomson Reuters Aranzadi; 2012. 15-47 or.

(7) Sans M, Sellarés J. Detección de la violencia de género en atención primaria. Rev Esp Med Legal [Internet]. 2010 [kontsulta 2017ko abenduak 30]; 36 (3):104-9. Eskuragarri:http://apps.elsevier.es/watermark/ctl_servlet?_f=10&pident_articulo=13189918&pident_usuario=0&pcontactid=&pident_revista=285&ty=4&accion=L&origen=elsevier&web=www.elsevier.es&lan=es&fichero=285v36n03a13189918pdf001.pdf

(8) Naciones Unidas Derechos Humanos. Oficina del alto comisionado [Internet]. New York; 1993 [kontsulta 2018 urtarrilak 9]. Declaración sobre la eliminación de la violencia contra la mujer; [7 pantaila ggb]. Eskuragarri: http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/ViolenceAgainstWomen.aspx

(9) Calvo G, Camacho R. La violencia de género: evolución, impacto y claves para su abordaje. Enferm glob [Internet]. 2014 [kontsulta 2017ko abenduak 30];13(1):424-439. Eskuragarri:https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4534730&orden=429847&info=link

(10) Osasunaren Munduko Erakundea. Women and health : today's evidence tomorrow's agenda [Internet]. Suitza; 2009 [kontsulta 2017ko abenduak 10]. Eskuragarri: http://apps.who.int/iris/bitstream/handle/10665/44168/9789241563857_eng.pdf;jsessionid=86EA73108D28A6E465909F344EA98B44?sequence=1

(11) EDE Fundazioko Ikerketa Sozialen Zerbitzua. EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. Datu estatistikoak: 2016 eta 2017ko lehen seihilekoa [Internet]. 2017 [kontsulta 2018ko urtarrilak 5]. Eskuragarri:http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/eu_def/adjuntos/eae_emakume_indarkeria_estatistikak_analisia_2016_2017_ls.pdf

(12) Mateos A. Guia de contenido para el profesorado. La violencia de genero y sus diferenets formas. In: Méndez JV, editorea. Programa Gener@-T: Programa socioeducativo para la prevención de la violencia de género en parejas adolescentes. Madril: Pirámide; 2013. 77-81 or.

(13) EDE Fundazioko Ikerketa Sozialen Zerbitzua. Violencia machista contra las mujeres en la CAPV: percepción, identidad y seguridad [Internet]. 1. ed. Gasteiz; 2013 [kontsulta 2018ko urtarrilak 28]. Eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_guias/es_def/adjuntos/pub.violencia.machista.contra.mujeres.cas.pdf

(14) Santibáñez R, Ruiz M, González M, Fonseca I. Parejas adolescentes en conflicto: explorando la incidencia de la violencia en las primeras relaciones afectivas. Revista de intervención socioeducativa [Internet]. 2016 [kontsulta 2017ko abenduak 30];(63):79-94. Eskuragarri:http://redined.mecd.gob.es/xmlui/bitstream/handle/11162/124585/5.pdf?sequence=1&isAllowed=y

(15) Álvarez MA, Sánchez A, Bojó P, Zelaiaran K, Aseguinolaza A, Azanza MA, et al. Manual de atención psicológica a víctimas de maltrato machista [Internet]. Donostia: Colegio Oficial de la Psicología de Gipuzkoa; 2016 [kontsulta 2018ko martxoak 30]. Eskuragarri: https://www.cop.es/GT/Manual.pdf

(16) Genero-Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza. EAEn genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak. 2010eko balantzea [Internet]. 2010 [kontsulta data: 2018ko urtarrilak 5] Eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/eu_def/adjuntos/balance.2010.violencia.genero.capv.eus.pdf

(17) Genero-Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza. Genero-indarkeriaren biktimak EAEn. 2011eko emaitzak [Internet]. 2011 [kontsulta 2018ko urtarrilak 5] Eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/eu_def/adjuntos/balance.2011.mujeres.victimas.violencia.genero.capv.eus.pdf

(18) EDE Fundazioko Ikerketa Sozialen Zerbitzua. Emakumeen kontrako indarkeria Euskal Autonomia Erkidegoan. Datu estatistikoak 2012 [Internet] 2012 [kontsulta 2018ko urtarrilak 5] Eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/eu_def/adjuntos/violencia.datos.estadisticos.2012.eus.pdf

(19) EDE Fundazioko Ikerketa Sozialen Zerbitzua. Emakumeen kontrako indarkeria Euskal Autonomia Erkidegoan. Datu estatistikoak 2013 [Internet] 2013 [kontsulta 2018ko urtarrilak 5] Eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/eu_def/adjuntos/violencia.datos.estadisticos.2013.eus.pdf

(20) EDE Fundazioko Ikerketa Sozialen Zerbitzua. Emakumearen aurkako indarkeria EAEn. Amaierako txostena 2014ko eta 2015eko lehen seihileko datuak [Internet] 2015 [kontsulta 2018ko urtarrilak 5] Eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/eu_def/adjuntos/azken_txostena_2014_2015-06.pdf

(21) EDE Fundazioko Ikerketa Sozialen Zerbitzua. Emakumearen aurkako indarkeria EAEn [Internet] 2016 [kontsulta 2018ko urtarrilak 5] Eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/eu_def/adjuntos/violencia_contra_mujeres_capv_2016_eu.pdf

(22) Calvo RT, Cinos L, Cuellas A, Fernández MC, Gonzalez MM, Guzmán MA, et al. Guía de práctica clínica sobre violencia contra las mujeres en la pareja [Internet]. Valladolid: Gerencia Regional de Salud; 2010 [kontsulta 2018ko urtarrilak 28]. Eskuragarri:http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/profesionalesInvestigacion/protocolosAmbitoAutonomico/sanitario/docs/Guia_practica_clinica_Castilla_y_Leon.pdf

(23) Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. Plan Nacional de Sensibilización y Prevención de la Violencia de Género [Internet]. Madril; 2007 [kontsulta 2018ko urtarrilak 28].Eskuragarri:https://www.cop.es/GT/Plan_nacional_sensibilizacion_prevencion_violencia_genero.pdf

(24) 1/2004 Legea, abenduaren 8koa, Genero-indarkeriaren aurkako babes neurriei buruzkoa [Internet]. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 313 zbk. (2005 urtarrilak 28). Eskuragarri: https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2004-21760

(25) Osasun Saila EJ. Osasuna, Pertsonen Eskubidea, Guztion Ardura. Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020 [Internet]. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia; 2013 [kontsulta 2018ko urtarrilak 28]. Eskuragarri:

http://www.euskadi.eus/web01s2osa/eu/contenidos/plan_gubernamental/xleg_plangub_13/eu_plang_13/index.shtml

(26) Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad. Protocolo común para la actuación sanitaria ante la Violencia de Género [Internet]. Madril; 2012 [kontsulta 2018ko urtarrilak 28]. Eskuragarri: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/profesionalesInvestigacion/sanitario/docs/PSanitarioVG2012.pdf

(27) Generalitat valenciana. Proyecto Iceberg. Manual sobre violencia de género [Internet]. 2009 [kontsulta 2018ko martxoak 1]. Eskuragarri: http://bbpp.observatorioviolencia.org/upload_images/File/DOC1384171358_Manual%20sobre%20violencia%20de%20g%C3%A9nero%20Proyecto%20Iceberg.pdf

(28) Pérez MJ, Echauri M, Ancizu E, Chocarro J. Manual de educación para la salud. [Internet]. Nafarroako gobernua; 2006 [kontsulta 2018ko otsailak 20]. Eskuragarri: https://www.navarra.es/nr/rdonlyres/049b3858-f993-4b2f-9e33-2002e652eba2/194026/manualdeeducacionparalasalud.pdf

(29) Benito A, Nuin B, Sorarrain Y, Blanco M, Astillero MJ, Paskual A, et al. Osasun ikuspegi komunitario batetik lantzeko gida metodologikoa [Internet]. Eusko Jaurlaritza, Osasun Saila; 2016 [kontsulta 2018ko martxoak 1]. Eskuragarri: https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/salud_comunitaria/eu_def/adjuntos/guia-metodologia-eus.pdf

(30) Canet E. Programa de prevención de la violencia de género en educación. Secundaria: materiales docentes [Internet]. Valentzia: Direcció general de l'institut valencià de les dones i per la igualtat de gèner e. Col.legi ofical de t reball social de valència; 2015 [kontsulta 2018ko urtarrilak 20]. Eskuragarri: http://www.sinmaltrato.gva.es/documents/454751/162623125/MATERIALES+DOCENTES++FICHAS+TRABAJO.pdf/67d83ed4-d4fd-41c6-8331-911e69a83073

(31) Nafarroako Gazte Kontseilua. Guía de los buenos amores. Para fomentar el buen trato y prevenir la violencia de género en el noviazgo entre jóvenes [Internet]. Iruña; 2011 [kontsulta 2018ko martxoak 15]. Eskuragarri: http://egk.eus/wp-content/uploads/2016/11/CJN-Gu%C3%ADa.pdf

(32) Comunidad Autónoma de la Región de Murcia. Unidad didáctica "Prevención de la Violencia de Género en Jovenes y Adolescentes" [Internet]. Murtzia; 2013 [kontsulta 2018ko martxoak 15]. Eskuragarri: http://www.educarenigualdad.org/media/pdf/uploaded/material/306_u-d-violencia-de-gxnero-secundaria-pdf.pdf

(33) Instituto Andaluz de la Mujer. Consejeria de Igualdad y Políticas Sociales [internet]. 2014 [kontsulta 2018ko apirilak 3]. Coeducación, App DetectAmor, Simulador App DetectAmor; [3 pantaila ggb]. Eskuragarri: http://www.juntadeandalucia.es/institutodelamujer/index.php/areas-tematicas-coeducacion/app-detectamor/simulador-app-detectamor

(34) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zer egin emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean? Baliabideen eta zerbitzuen gidaliburua [Internet]. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia; 2015 [kontsulta 2018ko apirilak 3]. Eskuragarri: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/folletos_violencia_mujeres/es_teleasis/adjuntos/2014_EMAKindark_EUtx.pdf

## ERANSKINAK

## 1. Eranskina | Emakumearen osasunerako ondorioak.




**1. Irudia:** Osasunerako ondorioak biologikoak, psikologikoak eta sozialak. Iturria: (22). Egikizun propioa.

**2. Eranskina |** EAEn Emakundek gauzatutako kanpainak eta proiektuak.

| KANPAINAK | AZALPENA |
|---|---|
| **Emakumearen aurkako indarkeriaren Nazioarteko eguna - Azaroak 25** | Berdin-sarearen testuinguruan (65 Udalatxetako teknikariek osatzen duten sarea da berdintasunaren alde), eta beste erakunde batzuekin elkarlanean, gazteen artean indarkeria saihesteko **BeldurBarik** programan oinarritutako kanpaina gauzatzen da egun honetan. |
| **Baloreen aldaketaren aldeko sentsibilizazioa** | Pertsonen sinesmenetan eta gizartearen eredu sinbolikoan eraldaketa burutzeko asmotan jarri du abian Emakundek sentsibilizazio kanpaina hau. Era honetan, VI Planeko ardatz nagusiarekin bat dator: balio aldaketak, gizarteko genero-rolak eta estereotipoak ezabatzeko beharra. Kanpaina honetarako lau spota burutu dira:<br>**1. SPOTA**: Eraiki dezagun zaintza kontuan hartu eta partekatzen duen gizartea. https://www.youtube.com/watch?v=KekkhQ1XZTQ&feature=youtu.be<br>**2. SPOTA**: Ez zaitzateta kontrolatu eta utzi kontrolatzeari! https://www.youtube.com/watch?v=0rOKtryBXtQ&feature=youtu.be<br>**3. SPOTA**: Pertsonak diren moduan baloratzen dituen gizarte baten alde. https://www.youtube.com/watch?v=JKNYutPAt8Q&feature=youtu.be<br>**4. SPOTA**: Emakumeen ekarpenak baloratu eta eredu bihurtu. https://www.youtube.com/watch?v=UY2vlwkm7dg&feature=youtu.be |
| **Festak - 2014** | Kanpaina honen barruan jaiak berdintasunean ospatzeko beharra eta eskubidea aldarrikatzen du Emakundek. Kanpaina honen protagonista Noa izeneko neska gazte bat da, zeinak eguneroko bizitzan dauden berdintasun gabeziak ikusten laguntzen duen. Emakundek udalen esku jarri ditu Noa agertzen den zenbait material grafiko (kartelak, pegatinak, etab.); jaiak errespetuan bizitzeko deia luzatzen duelarik. |

**1. Taula:** EAEn Emakundek gauzatutako kanpainak. Iturria: Emakunde. Emakumearen Euskal Erakundea [Internet]. Gasteiz [kontsulta data: 2018ko urtarrilak 28]. Sentsibilizazioa eta prebentzioa; [3 pantaila ggb]. Eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.eus/indarkeria/-/informazioa/sentsibilizazioa-prebentzioa/ Eginkizun propioa.

| PROIEKTUAK | AZALPENA |
|---|---|
| **Begira** | Emakunderi atxikitutako batzorde bat da; aholkularitza eskaintzea, azterketak egitea eta publizitate eta komunikazioaren eremuetan sexuaren arrazoizko bereizkeria mota oro desagerrarazteko helburua duelarik. Bere eginkizun nagusiak honakoak dira:<br>· Publizitatea eta komunikazioa aztertzea eta horren segimendua egitea.<br>· Publizitate eta komunikazio ez-sexistaren alorrean sentsibilizatzea eta prestakuntza eta aholkua ematea.<br>· Sexismoari buruzko irizpideak eta alternatibak ezartzea publizitatean eta komunikazioan.<br>· Herritarrek eta erakundeek jarritako kexak jasotzea eta aztertzea, eta, hala badagokio, organo eskudunetara bideratzea.<br>· Zigor-prozedura bat irekitzea proposatzea, 4/2005 Legean ezarritakoari jarraituz. |
| **Nahiko!** | Nahiko berdintasunerako, errespeturako eta indarkeria-ezarako Hezkidetza programa da. Proiektu koedukatibo honen helburua, ikasle neska eta ikasle mutilen arteko bizikidetza eta harreman giroa hobetzea, berdintasunerako eta Giza Eskubideetarako hezitzea eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea da.<br>2003.urtetik abian dagoen programa da eta dagoeneko 90 ikastetxe eta 4.000 ikaslek baino gehiagok hartu dute parte. Lehen Hezkuntzako ikasleei bideraturik dago eta ikasleek, irakasleek eta familiek parte hartzen dute. Programan parte hartu duten ikasleei egindako kanpoko ebaluaketek emaitza onak eman dituzte, esaterako:<br>· Ezagutza, hausnarketa, ñabardura, aberastasun eta aniztasun handiagoa dute honako kontzeptuen inguruan: genero-rolak, estereotipoak eta hauen ondorioak, ezberdintasunak, erantzukizuna, etab.<br>· Berdintasuna eskubide eta betebeharren iturritzat jotzen dute, euren bizimoduarekin eta tratu onekin, errespetoa eta indarkeria-ezarekin lotzen dute.<br>· Norbere pertzepzioan eta autoestimuan emaitzek gora egin dute. |
| **Beldur Barik** | Beldur Barik EAEko instituzioek elkarlanean bultzatua indarkeria sexista prebenitzeko gazteei zuzendutako programa da. Bere helburua gazteekin batera hausnarketa eta eztabaida prozesuak sustatzea da jendarte eraldaketan laguntzeko.<br>Beldur Barik jarreraren mezua eta filosofia jende gaztearen egunerokotasun eta errealitatera ahalik eta gehien heltzeko xedearekin, udalekin zuzeneko lanketak egiten dira, berdintasun arloekin zehazki eta gazteria arloekin elkarlanean. Ondorioz, gazteen tokian-tokiko errealitateetara egokitzen diren hainbat Beldur Barik ekintza (topaketak, ekimenak, lehiaketak, etab.) antolatzen dira. |
| **Gizonduz** | Gizonduz gizonak sexuen arteko berdintasunaren alde kontzientziatzeko eta beren parte hartzea eta inplikazioa bultzatzeko Eusko Jaurlaritzaren ekimen aitzindaria da eta Emakundek sustatzen du. Ekimena 2007ko azaroan abian jarri zen eta hura aurrera eramateko berdintasunaren eta maskulinotasunaren alorrean adituak diren eta gizonekin berdintasunaren aldeko lanean esperientzia duten pertsonen laguntza bilatu da.<br>Bere helburuak hauek dira: |

| | |
|---|---|
| | – Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeen indarkeriaren aurka sentsibilizatutako eta inplikatutako gizonen kopurua handitzea.<br>– Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan trebakuntza duten gizonen kopurua handitzea.<br>– Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzunkidetasuna handitzea.<br>Hau guztia betetzeko ekintza eta proiektu desberdinak gauzatzen ditu urtean zehar, azken proiektua 2017ko ekainean, *"Gazteak Berdintasunean 2.0"* izenekoa izan da, Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkarte publikoarekin elkarlanean. Proiektu horren bitartez, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako jarrerak bultzatu nahi dira nerabeen eta gazteen artean (bereziki, mutilen artean). Horretarako, teknologia berrietan oinarrituta, heziketarako tresna berritzaileak erabiliko dira. |

**2. Taula:** EAEn Emakundek gauzatutako proiektuak. Iturria: Emakunde. Emakumearen Euskal Erakundea [Internet]. Gasteiz [kontsulta data: 2018ko urtarrilak 28]. Sentsibilizazioa eta prebentzioa; [3 pantaila ggb]. Eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.eus/indarkeria/-/informazioa/sentsibilizazioa-prebentzioa/ Eginkizun propioa.

**3. Eranskina | Bilaketen emaitzak I**.

| DATU-BASEAK | BILAKETA-ESTRATEGIA | LORTUTAKO ARTIKULU KOPURUA | IRAGAZKIAK | LORTUTAKO ARTIKULU KOPURUA | HAUTATUTAKO ARTIKULU KOPURUA |
|---|---|---|---|---|---|
| **BVS** | (tw:(violencia contra la mujer)) AND (tw:(educación en salud)) AND (tw:(prevencion primaria)) | 9 | - | 9 | 0 |
| | (tw:(violencia contra la mujer)) AND (tw:(adolescentes)) AND (tw:(prevención)) | 123 | Testu osoa Urtea: 2017-2011 | 48 | 1 |
| **CUIDEN** | ([cla=Violencia de género])AND(([cla=Educación para la salud])AND([cla=Prevención primaria])) | 0 | - | 0 | 0 |
| | ([cla=Violencia de género])AND([cla=Prevención primaria]) | 3 | - | 3 | 0 |
| **MEDES** | *((("Maltrato a las mujeres@636"[id_palabras_clave]) AND "Prevención primaria@604"[id_palabras_clave]) AND "Educación@5632"[id_palabras_clave])* | 0 | - | 0 | 0 |
| | *(("Maltrato a las mujeres@636"[id_palabras_clave]) AND "Educación en salud @21855"[id_palabras_clave])* | 0 | - | 0 | 0 |
| **PUBMED** | *("Violence against women" AND "health education")* | 602 | Free full text Publication dates: 5 years | 119 | 0 |
| **DIALNET** | *Relaciones Igualitarias* | 444 | Testu osoa: bai | 352 | 0 |
| | *Violencia de genero AND programa de salud* | 103 | Testu osoa: bai Urte tartea: 2010-2019 | 71 | 2 |
| | *Violencia de genero AND educación en salud* | 122 | Testu osoa: bai | 77 | 0 |
| **COCHRANE PLUS** | *(Violencia contra la mujer) AND (Educación) AND (Prevención primaria)* | 1 | - | 1 | 0 |

**3. Taula:** PIO egitura jarraituz datu-baseetan egindako bilaketen emaitzak. Iturria: propioa.

**4. Eranskina | Bilaketen emaitzak II**.

| DATU-BASEAK | BILAKETA-ESTRATEGIA | LORTUTAKO ARTIKULU KOPURUA | IRAGAZKIAK | LORTUTAKO ARTIKULU KOPURUA | HAUTATUTAKO ARTIKULU KOPURUA |
|---|---|---|---|---|---|
| **BVS** | *(tw:(violencia contra la mujer)) AND (tw:(factores de riesgo))* | 370 | Texto completo | 237 | 1 |
| **CUIDEN** | *([cla=Violencia])AND([cla=Mujer])* | 399 | Texto completo<br>Urte-tartea: 2010-2018 | 184 | 1 |
| **MEDES** | *("Maltrato a las mujeres@636"[id_palabras_clave])* | 100 | - | 100 | 0 |
| **PUBMED** | *("Violence against women" [All Fields] AND "adolescents"[All Fields])* | 1098 | Free full text<br>Publication dates: 5 years<br>Species: humans<br>Languages: english, spanish<br>Sex: Female<br>Article types: Journal Article, Review, Systematic review. | 420 | 0 |
| **DIALNET** | *Tipos de violencia de genero* | 820 | Testu osoa<br>Urte-tartea: 2010-2019<br>Herrialdeak: espainia<br>Hizkuntza: gaztelera<br>Dokumentu mota: aldizkariko artikuluak | 144 | 3 |
| **COCHRANE PLUS** | *(Violencia de genero) AND (factores de riesgo)* | 17 | - | 17 | 0 |

**3. Taula**: Datu baseetan egindako gainerako bilaketak. Iturria: propioa.

## 5. Eranskina | Bilaketen emaitzak III.

| BALIABIDEA | WEB ORRIALDEAK | IZENBURUAK |
|---|---|---|
| **WEB-ORRIALDETAKO ATALAK** | Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (EMAKUNDE) | Kanpainak.<br>Begira proiektua.<br>Nahiko proiektua.<br>Beldur Barik proiektua.<br>Gizonduz proiektua. |
| **WEB-ORRIALDETAKO DOKUMENTUAK** | Nazio Batuen Erakundea (NBE) | Declaración sobre la Eliminación de la Violencia contra la Mujer |
| | Munduko Osasunaren Erakundea (MOE) | Women and health: today's evidence tomorrow's agenda |
| | Espainiako Osasun Ministerioa (Violencia de Genero) | Protocolo común para la actuación sanitaria ante la Violencia de Género.<br>Guía de práctica clínica sobre violencia contra las mujeres en la pareja. |
| | Eusko Jaurlaritza | I Plan de actuación al Gobierno contra la violencia de género. |
| | Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (EMAKUNDE) | Mujeres víctimas de la violencia de género en la CAPV 2010.<br>Mujeres víctimas de violencia de género en la CAPV 2011.<br>Violencia contra las mujeres en la comunidad autónoma del País Vasco 2012.<br>Violencia contra las mujeres en la comunidad autónoma Pais vasco 2013.<br>Violencia contra las mujeres en la CAPV 2014.<br>Violencia contra las mujeres en la CAPV 2015.<br>Análisis e interpretación de datos estadísticos sobre violencia contra las mujeres en la CAPV 2016. |
| | Osakidetza | Osasuna, Pertsonen Eskubidea, Guztion Ardura. Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020. |
| | Instituto Canario de Igualdad | Guía para la atención a mujeres víctimas de violencia de género. |

**4. Taula:** web-orrialdeetan lortutako bilaketen emaitzak. Iturria: propioa.

## 6. Eranskina | Bilaketen emaitzak IV.

| BALIABIDEA | LIBURUTEGIA | IZENBURUAK |
|---|---|---|
| **LIBURUAK** | EHU/UPV liburutegia | La violencia de género en la adolescencia.<br>Marco conceptual para la intervención profesional en materia de violencia de género - Violencia de género: prevención, detección y atención. |
| | Koldo Mitxelena liburutegia | Programa socioeducativo para la prevención de la violencia de género en parejas adolescentes. |

**5. Taula:** liburutegian lortutako bilaketen emaitzak. Iturria: propioa.

## 7. Eranskina | Bilaketen emaitzak V.

| BALIABIDEA | WEB-ORRIALDEA | IZENBURUAK |
|---|---|---|
| **DOKUMENTUAK** (Gidak, protokoloak, programak, etab.). | Instituto Canario de Igualdad | Guía para la atención a mujeres víctimas de violencia de género. |
| | Espainiako Osasun Ministerioa (Violencia de Genero) | Protocolo común para la actuación sanitaria ante la Violencia de Género.<br>Guía de práctica clínica sobre violencia contra las mujeres en la pareja. |
| | Observatorio de Violencia | Manual sobre violencia de género. Proyecto Iceberg. |
| | Nafarroako Gobernua | Manual de educación para la salud. |
| | Osakidetza | Osasun ikuspegi komunitario batetik lantzeko gida metodologikoa. |
| | Sin maltrato | Programa de prevención de la violencia de género en educación secundaria: materiales docentes. |
| | Euskadiko Gazteria Kontseilua | Guía de los buenos amores. |
| | Educar en igualdad | Unidad Didáctica “Prevención de la Violencia de Género en Jóvenes y Adolescentes”. |
| | Instituto andaluz de la mujer | App DetectAmor. |
| | Eusko Jaurlaritza (Enplegu eta Gizarte Politikoetako Saila) | Zer egin emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean? Baliabideen eta zerbitzuen gidaliburua. |

**6. Taula**: web-orrialdeetan lortutako gidak, protokoloak, programak, etab. Iturria: propioa.

**8. Eranskina |** Osasun-hezkuntzaren aurretiko galdetegia**.**

# - GALDETEGIA -

- **Adina** 13 urte ☐ 14 urte ☐ 15 urte ☐ 16 urte ☐ 17 urte ☐ 18 urte ☐
- **Maila** 1. Maila ☐ 2. Maila ☐ 3. Maila ☐
- **Sexua** ♂ ☐ ♀ ☐ ⚥ ☐

▶ Erantzun ondorengo galderei:

1. **Nola definituko zenuke genero indarkeria? Labur azaldu.**

2. **Jarraian agertzen diren aukeretatik X ikurrez adierazi genero indarkeria motak kontsideratzen dituzunak:**

   ☐ Fisikoa
   ☐ Psikologikoa
   ☐ Sexu bidezkoa
   ☐ Bikote edo bikote ohiarena
   ☐ Komunitatekoa
   ☐ Soziala
   ☐ Ekonomikoa
   ☐ Familiakoa
   ☐ Ingurunekoa
   ☐ Eskolakoa edo lanekoa

3. **EAEn, ondorengo aukeretatik zein indarkeria mota gailentzen dela uste duzu?**

   ☐ Bikoteak edo bikote ohiak gauzatutako indarkeria
   ☐ Esparru familiarrean gauzatutako indarkeria (bikote edo bikote ohiaren indarkeria izan ezik).
   ☐ Sexu askatasunaren aurkako indarkeria sexuala.

4. **EAEn, zein da indarkeria kasu gehien jasaten duen adin-taldea?**

   ☐ < 18 urte
   ☐ 18-30 urte
   ☐ 31-50 urte
   ☐ > 50 urte

5. **Genero-indarkeria multifaktoriala da, hau da, arrisku faktore ugarik eragiten dute. Aipatu bost arrisku-faktore:**

| |
|---|
| |

6. Bikotean gertatzen diren indarkeria egoerak zergatik gertatzen eta mantentzen diren ulertzen laguntzeko, Leonore Walker-ek *“El ciclo de la violencia”* teoria proposatu zuen. **Indarkeriaren zikloa hiru etapak osatzen dute, ba al dakizu etapa horien izenak zeintzuk diren?**
   - ☐ Bai
   - ☐ Ez

7. **Zer esango zenuke maitasun erromantikoari buruz?**

8. **Bikote nerabeen artean, bi harreman bereizten dira bereziki: maitasun osasuntsua eta maitasun kaltegarria. Jakingo al zenuke harreman bakoitzaren ezaugarriak adierazten? Gutxienez bost ezaugarri zehaztu bakoitzetik.**

   Maitasun osasuntsua:
   -
   -
   -
   -
   -

   Maitasun kaltegarria:
   -
   -
   -
   -
   -

9. **Komunikabideek** (sare-sozialak, kantuak, filmak, etab.) **maitasun kontzeptuaren ulermenean eta hautematean eragiten dutela iruditzen al zaizu?**
   - ☐ Bai
   - ☐ Ez

Erantzuna baiezkoa bada, aipatu adibide batzuk:

- Sare-sozialak:

……………………………………………………………………………………………..

- Kantuak:

…………………………………………………………………………………….................

- Filmak:

……………………………………………………………………………………………..

10. **Bikoteak kontrolatu, ingurune sozialetik baztertu eta intimidatuz gero edo horren susmoa izanez gero, zer egingo zenuke?**
    - ☐ Guraso, lagun, anai-arreba, irakasle edo osasun profesional bati kontatu.
      Hala bada, norengana joko zenuke? Borobildu.
      Aita – Ama – Lagunak – Anai/Arreba – Irakaslea – Erizaina – Medikua
    - ☐ Web-orrietan ikertu (Emakunde, esaterako).
    - ☐ Telefono zenbaki hauetako batera deitu: 112/ 016/ 900 840 111
    - ☐ Osasun-zentroko mediku edo erizain erreferentearengana joan laguntza eske.
    - ☐ Isilpean eduki; arazoa bikotearekin konpontzen saiatu.

*Ad hoc.sortutako galdetegia.* Iturria: eginkizun propioa



# OSASUN-AGENTEAK

# - GIDA LIBURUA -

## 9 – 13. ERANSKINAK

**9. Eranskina |** 1. Gaiko jardueren azalpenak**.**

Osasun-hezkuntzak iraungo duen bi asteetan erizaina izango denez saio guztien gidari, ikaskide eta erizainaren artean konfiantza-harreman bat sortzea garrantzitsua izango da; horretarako, erizaina eta orientatzailea partaide izango diren jarduera bat burutuko da lehenengo saioari ekiteko. Jarduera horren bidez, konfiantza giroa lortu nahi da; eta horretarako, kolaborazio eta ardura rolak aplikatu beharko dituzte ikasleek.

<table>
<tr><th colspan="2">1. JARDUERA: “Itsu-gidaria”</th></tr>
<tr><td>TEKNIKA-MOTA</td><td>Elkartze-teknika</td></tr>
<tr><td>IRAUPENA</td><td>20 minutu</td></tr>
<tr><td>OSASUN-AGENTEA</td><td>Erizaina eta orientatzailea</td></tr>
<tr><td>BALIABIDEAK</td><td>25 zapi, oztopoak (aulkiak eta mahaiak)</td></tr>
<tr><td colspan="2">AZALPENA:<br>Taldeko partaide guztien artean bikoteak eratu eta ikasgelaren ezker aldean sakabanatuko dira. Bikote bakoitzeko kide batek itsuaren rola hartuko du eta besteak gidariarena. Itsuaren rola hartuko duen kideak begiak estali beharko ditu zapi baten laguntzaz eta gidaria itsuaren atzean kokatuko da, esku bat bere sorbaldan ipiniz (begiak estalita dituenez segurtasuna transmititzeko). Behin itsuaren rola duten guztiek begiak estalita dituztenean, ikasgela oztopoz (aulkiez eta mahaiez) beteko da eta gidariek itsuei lagundu beharko diete ikasgela ezker aldetik eskuin aldera zeharkatzen oztopoak saihestuz. Horretarako, gidariek bost keinu erabil ditzakete soilik:<br>Aurrera joateko: bizkarraren goialdean kolpetxoa (kolpetxo bat = pauso bat).<br>Atzera joateko: bizkarraren behealdean kolpetxoa.<br>Eskuinera joateko: eskuineko sorbaldan kolpetxoa.<br>Ezkerrera joateko: ezkerreko sorbaldan kolpetxoa.<br>Norabidez aldatzeko: buruan hatzarekin irudikatu norabidearen norantza.<br><br>Ondoren, rolak trukatu eta oztopoak lekuz aldatuko dira. Kasu honetan, ikasgelaren eskuin aldean sakabanatuko dira eta ezker aldera joan beharko dute. Azkenik, jarduera burutzeak eragindako sentsazioak transmitituko dizkiete elkarri talde handian.</td></tr>
</table>

**7. Taula:** “*Itsu-gidaria*” jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: Azpeitia P, Galaradi O, Arguilea C. 24 dinámicas grupales para trabajar con adolescentes [Internet]. Donostia; 2014 [kontsulta data: 2018ko martxoak 18]. Eskuragarri: http://www.gazteforum.net/pictures/dokumentazioa/dinamicas.pdf Eginkizun propioa.

Jarraian, Osasun-hezkuntzari dagokion lehenengo gaia, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun aukeren sentsibilizazioa, landuko da. Horretarako, genero indarkeriarekin erlazionatutako kontzeptu zehatzak identifikatzeko eta definitzeko 2-6 arteko jarduerak proposatzen dira.

Jarraian ageri den jardueraren bidez, ikasleek genero indarkeriarekin erlazionatutako zazpi terminori buruz otutzen zaiena idatzi eta kontzeptu bakoitzeko adibide bat ipini beharko dute.

| 2. JARDUERA: *"Kontzeptuak elkar-lotzen"* | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Genero indarkeriarekin erlazionatutako termino zehatzak identifikatzea eta definitzea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Ikerketa teknika: galdetegia |
| **IRAUPENA** | 25 minutu |
| **OSASUN-AGENTEA** | Erizaina |
| **BALIABIDEAK** | Arbela, arkatz markatzailea eta 2. jarduera burutzeko fitxa |
| **AZALPENA:** 20-25 ikaslez osatutako taldeak direla kontuan hartuz, 4-5 pertsonako bost talde mistoetan banatuko da ikasgela. Talde bakoitzak 20 minutu izango ditu zazpi terminoak definitzeko beraien hitzetan eta kasu bakoitzeko adibide bat idazteko. Ondoren, erantzunak amankomunean ipiniko dira ikasle guztien artean (15 minutu); kontzeptuak argi ulertu direla ziurtatuz. Horretarako talde txikietako ordezkari bakoitzak beraien ekarpena talde handiari adieraziko dio. | |

**8. Taula:** *"Kontzeptuak elkar-lotzen"* jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa.

Behin termino bakoitzaren definizioa argituta, ikasleek ikasitakoa praktikara eramango dute, honako termino hauekin lotuta dauden jarduerak burutu beharko dituztelarik: sexismoa, matxismoa, feminismoa, patriarkatza, berdintasun eza, genero-rolak eta genero-estereotipoak.

| 3. JARDUERA: *"Asmakizuna".* | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Genero indarkeriarekin erlazionatutako termino zehatzak identifikatzea eta definitzea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Esposizio teknika: bideoa eztabaidarekin |
| **IRAUPENA** | 25 minutu |
| **OSASUN-AGENTEA** | Erizaina |
| **BALIABIDEAK** | Arbela, proiektorea, ordenagailua, arkatz markatzailea eta 3. jarduera burutzeko fitxa. |
| **AZALPENA:** Sexismoaren kontzeptua aztertzeko jarduera da. Jarduera honetan, bideo labur bat ipiniko da non Kike Amonarrizek asmakizun bat proposatzen duen. Ikasleek era indibidualean erantzun beharko dute asmakizuna. Horretarako, 5 minutu izango dituzte. Honen ostean, ikasleek beraien erantzunak adieraziko dituzte talde handian eta erantzun egokia bideoaren amaiera ipiniz jakingo da (5 minutu). Azkenik, ikasleen parte hartzea eskatuko da erantzun egokia eta beraiek emandakoa eztabaidatzeko (15 minutu). | |

**9. Taula:** *"Asmakizuna"* jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa.

| 4. JARDUERA: *"Zure esanetara?".* | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Genero indarkeriarekin erlazionatutako termino zehatzak identifikatzea eta definitzea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Esposizio teknika: bideoa eztabaidarekin. |
| **IRAUPENA** | 50 minutu |
| **OSASUN-AGENTEA** | Orientatzailea |
| **BALIABIDEAK** | Proiektorea, ordenagailua eta 4. jarduera burutzeko fitxa |
| **AZALPENA:** Matxismoaren, feminismoaren eta patriarkatzaren terminoak sakontzeko jardueran datza. "*El orden de las cosas"* izeneko film laburra ipiniko da (20 minutu). Filma ikusten ari diren bitartean era indibidualean adierazi beharko dute sistema patriarkalaren ezaugarriak eta matxismoaren nagusitasuna non antzematen den. Hau egin ondoren, talde txikietan elkartu eta bakoitzaren | |

| |
|---|
| ideiak argudiatuko dituzte iritzi amankomun bat sortuz (15 minutu). Azkenik, talde txikietako ordezkariek talde handiari helaraziko diote adostutakoa (15 minutu). |

**10. Taula:** *"Zure esanetara?"* jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa.

| **5. JARDUERA: *"People".*** | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Genero-indarkeriarekin erlazionatutako termino zehatzak identifikatzea eta definitzea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Hausnarketa teknika: testuen analisia. |
| **IRAUPENA** | 20 minutu |
| **OSASUN-AGENTEA** | Erizaina |
| **BALIABIDEAK** | Arbela, proiektorea, ordenagailua, arkatz markatzailea eta 5. Jarduera burutzeko fitxa. |
| **AZALPENA:**<br>Berdintasun eza terminoa lantzeko jarduera da. Aurreko jarduera burutzeko egin diren talde txikiak mantenduko dira. Arbelean "*People"* dantzalekuko horma-irudia proiektatuko da, ikasleek horma-irudia aztertu eta horren inguruan hausnartu beharko dutelarik talde txikietan (10 minutu). Hausnartzen laguntzeko, bi galdera formulatu dira. Ondoren, 5 minutu izango dituzte iritzi amankomuna talde handian adierazteko. Horretarako, talde txikietako ordezkari batek beraien ekarpena talde handiari adieraziko dio. | |

**11. Taula:** *"People"* jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa

| **6. JARDUERA: *"Rolak eta estereotipoak."*** | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Genero-indarkeriarekin erlazionatutako termino zehatzak identifikatzea eta definitzea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Hausnarketa teknika: ariketa. |
| **IRAUPENA** | 25 minutu |
| **OSASUN-AGENTEA** | Erizaina |
| **BALIABIDEAK** | Arbela, proiektorea, ordenagailua, arkatz markatzailea eta 6. jarduera burutzeko fitxa. |
| **AZALEPNA:**<br>Genero-rolak eta estereotipo-rolak jorratzeko jarduerari dagokio. Ikasleek talde txikietan jarraitu beharko dute jarduera hau burutzeko. Orriaren goialdean agertzen diren ezaugarri pertsonalak, gaitasunak eta erantzukizunak dagokion zutabean kokatu beharko dituzte. Guztira hiru zutabe daude: emakumeena, gizonena eta biei dagokiena. Talde txikietan, jarduera burutzeko 10 minutu izango dituzte; ondoren, beraien erantzunak argudiatu beharko dituzte talde handian (15 minutu). Horretarako, talde txikietako ordezkari batek beraien ekarpena talde handiari adieraziko dio. | |

**12. Taula:** *"Rolak eta estereotipoak"* jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa.

## **10. Eranskina | **2. Gaiko jardueren azalpenak**.**

Osasun-hezkuntzaren 2. saioan bigarren gaia jorratuko da. Guztira formulatu diren bost helbururi jarraiki, sei jarduera proposatu dira saio honetan zehar burutzeko.

Bigarren saioari, genero indarkeria definitzeko, ideia zaparrada batekin emango zaio hasiera; horretarako, 7. Jarduera proposatu da:

| 7. JARDUERA: *"Definitu".* | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Genero indarkeria zer den definitzea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Ikerketa-teknika: ideia zaparrada |
| **IRAUPENA** | 20 minutu |
| **OSASUN-AGENTEA** | Erizaina |
| **BALIABIDEAK** | Arbela, arkatz markatzailea eta 7. jarduera burutzeko fitxa. |
| **AZALPENA:**<br>1. Saioan eratu zituzten talde mistoak desegin eta talde txiki berriak eratuko dituzte. Era honetan, taldekide ezberdinekin jarduteko aukera izango dute. Talde txikietako ordezkariak ere aldatu egingo dira, beste ikasle batzuei aukera emanez.<br>Eratu berri den talde bakoitzak, 5 minutu izango ditu *genero indarkeria* kontzeptua entzun eta burura etortzen zaizkien ideiak orri txuri batean idazteko. Ondoren, talde txikietako ordezkari berriek taldean eztabaidatutakoa helaraziko dute talde handian eta guztien artean *genero indarkeriaren* definizio bat osatuko da (15 minutu). | |

**13. Taula:** *"Aupa hi, bota piñue"* jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa.

Jarraian landuko den jardueraren bidez, ikasleek azken hilabeteetan genero indarkeriarekin erlazionatutako albisteak aztertu eta eztabaidatu beharko dituzte, gaiak duen intzidentzia eta garrantzia identifikatzeko asmotan:

| 8. JARDUERA: *" Komunikabideetako berriak".* | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Genero indarkeriaren intzidentzia eta garrantzia identifikatzea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Esposizio teknika: idatzia eztabaidarekin. |
| **IRAUPENA** | 45 minutu |
| **OSASUN-AGENTEA** | Erizaina |
| **BALIABIDEAK** | Arbela, arkatz markatzailea eta 8. jarduera burutzeko fitxa. |
| **AZALPENA:**<br>Ikasle bakoitzari Berria egunkariko albiste bat banatuko zaio (guztira bost albiste egongo dira). Hasieran era indibidualean burutzeko jarduera izango da; albistea irakurri eta ideia nagusiak azpimarratu beharko dituztelarik (7 minutu). Ondoren, albiste bera duten ikaskideak elkartu egingo dira talde txikiak eratuz. Albistearen inguruko ideia nagusiak elkarri adierazi eta ondorio amankomunak eratu beharko dituzte guztien parte hartzea bultzatuz (13 minutu). Azkenik, talde bakoitzak ordezkari bat aukeratuko du talde handiari landutakoa adierazteko (20 minutu).<br><br>Albiste guztien azalpenak egin ostean, ikasle guztien parte hartzea eskatuko duen galdera formulatuko zaie: "*albiste ezberdinen azterketa burutu ostean, argi dago genero-indarkeriaren ondoriorik asaldagarriena emakumearen heriotza dela, baina heriotzera iritsi aurretik zein ondorio kaltegarri daudela esango zenukete? Emakumeari soilik eragiten diote edo baita, bere inguruneari ere?"* (5 minutu). | |

**14. Taula:** *"Komunikabideetako berriak"* jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa.

Hurrengo jarduera genero indarkeriaren zikloa nola gauzatzen den adierazteko erabilgarria da:

| 9. JARDUERA: ***“Zikloa”.*** | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Genero indarkeriaren zikloa eta igoaldia nola gauzatzen den adieraztea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Esposizio teknika: idatzia eztabaidarekin. |
| **IRAUPENA** | 30 minutu |
| **OSASUN-AGENTEA** | Orientatzailea |
| **BALIABIDEAK** | Proiektorea, ordenagailua eta 9. jarduera burutzeko fitxa |
| **AZALPENA:**<br>Ikasleek indarkeriaren zikloaren etapak eta hauen ezaugarriak aztertu beharko dituzte era indibidualean (5 minutu). Hori egin ostean, talde txikietan batu eta elkarri adierazi beharko diote ulertutakoa (10 minutu). Jarduerarekin amaitzeko, talde txikietako eztabaida talde handira erraztuko da, proposatuko zaizkien galderen laguntzaz (15 minutu): genero indarkeriaren zikloa azaltzeko ereduarekin bat al zatoz? Zikloa behin eta berriro biraka jarduten duela iruditzen zaizu? | |

**15. Taula:** *“Zikloa”* jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa.

Ondorengo jarduerarekin, genero-indarkeriaren igoaldia ulertzeko lagungarri izan daitekeen ondorengo jarduera proposatu da:

| 10. JARDUERA: ***“Irakiten dagoen igela”*** | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Genero indarkeriaren zikloa eta igoaldia nola gauzatzen den adieraztea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Esposizio teknika: bideoa eta irudia eztabaidarekin. |
| **IRAUPENA** | 35 minutu |
| **OSASUN-AGENTEA** | Orientatzailea |
| **BALIABIDEAK** | Proiektorea, ordenagailua eta 10. jarduera burutzeko fitxa |
| **AZALPENA:**<br>Ikasleek indarkeriaren igoaldia irudikatzen duen grafikoa aztertu eta bideo labur bat ikusiko dute (beharrezkoa bada bideoa beste behin ipiniko da), indibidualki (10 minutu). Jarraiki, aurreko jarduera burutzeko talde txiki berberetan elkartuko dira eta ulertu dutena elkarri azalduko diote, ikuspuntu bateratua eratuz (15 minutu). Azkenik, eztabaida giroa sortuko da genero indarkeriaren igoaldiaz ulertu dutena adieraziz (10 minutu).<br><br>Ikasleek ikusiko duten bideoarekin indarkeriaren igoaldian gertatzen den ohitze-prozesua ulertarazi nahi da. Hau da, bikotearen artean gertatzen diren erasoak ohiko bilakatzen joaten dira eta horren ondorioz, erasoen larritasun maila handitzen joaten da. Egoera hauetan, emakumea igelarekin erkatzen da; izan ere, bien kasuan erreakzionatzeko duten gaitasuna gutxitzen doa. Igelaren kasuan, ura berotzen doan heinean eta emakumearen kasuan, erasoen larritasun maila handitzen doan heinean. Era honetan, emakumearen ohiko bizimoduaren parte bihurtzen dira; horien aurka jarduteko ahalmena deuseztatzen delarik. Erasoak mailarik gorenera helduz gero, bi kasuak heriotzean amaitu daitezke. | |

**16. Taula:** *“Irakiten dagoen igela”* jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa.

Ikasleek genero indarkeria motak zein diren eta beraien ezaugarriak zeintzuk diren adieraztea lortu nahi da. Horretarako, gurutzegrama batean oinarritu da jarduera:

| 11. JARDUERA: *“Motak hautematen”.* | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Genero-indarkeria motak eta ezaugarriak zeintzuk diren adieraztea eta deskribatzea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Hausnarketarako teknika: ariketa. |
| **IRAUPENA** | 25 minutu |
| **OSASUN-AGENTEA** | Erizaina |
| **BALIABIDEAK** | Proiektorea, ordenagailua, arbela, arkatz markatzailea eta 11. jarduera burutzeko fitxa. |
| **AZALPENA:** Aurreko jarduera burutzeko egin diren talde txikietan jarraituko dute. Helaraziko zaien fitxan agertzen den genero indarkeria moten definizioak eta adierazpenak irakurriz, bi gurutzegrama osatu beharko dituzte(10 minutu). Hori egin ostean, talde bakoitzeko ordezkarien parte hartzearekin talde handian zuzendu eta zalantzak argituko dira (15 minutu). | |

**17. Taula:** *“Motak hautematen”* jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa.

Azkenik, ikasleek genero-indarkeriaren arrisku faktoreak zerrendatu ahal izateko, ondorengo jarduerari ekingo zaio:

| 12. JARDUERA: *“Multidimentsionala”.* | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Genero-indarkeriarekin erlazionatutako arrisku faktoreak zerrendatzea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Hausnarketa teknika: ariketa. |
| **IRAUPENA** | 25 minutu |
| **OSASUN-AGENTEA** | Erizaina |
| **BALIABIDEAK** | Arbela, arkatz markatzailea eta 12. jarduera burutzeko fitxa. |
| **AZALPENA:** Ikasle bakoitzari ausaz aukeratutako bi arrisku faktore eta komodina banatuko zaizkio. Bi arrisku faktoreren artean bat hautatu beharko dute eta arrazoitu (2 minutu). Arrisku faktoreak ikaslearen gustukoak ez badira, komodineko txartela erabil dezake eta nahi duten arrisku faktorea idatzi, justifikatuz betiere. Horren ostean, aurreko jarduerak burutzeko talde txikietan elkartuko dira ikasleak eta arrisku faktore bakarra hautatu beharko dute (8 minutu). Azkenik, talde handiari azalduko dio talde txiki bakoitzak aukeraturiko arrisku faktorea eta horren arrazoia (15 minutu). Gainontzeko ikasleek galderak egiteko edo beraien iritzia emateko aukera izango dute, eztabaida giroa sortuz. | |

**18. Taula:** “Multidimentsionala” jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa.

**11. Eranskina ❙** 3. Gaiko jardueren azalpenak**.**

Osasun-hezkuntzaren ekuatorean kokatzen den 3. saio honetan, ikasleek maitasun idealak identifikatzea eta eztabaidatzea lortu nahi da. Horretarako, planteatutako hiru jarduera hauek burutuko dira:

| 13. JARDUERA: *“Bai ala ez”.* | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Maitasun erromantikoari buruzko mitoak eta sinesmenak identifikatzea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Ikerketa teknika: galdetegia. |
| **IRAUPENA** | 30 minutu |
| **OSASUN-AGENTEA** | Orientatzailea |
| **BALIABIDEAK** | Proiektorea, ordenagailua eta 13. jarduera burutzeko fitxa |
| **AZALPENA:** Jarduera honen lehenengo zatia era indibidualean burutuko da. Ikasleek maitasunaren mitoak diren ala ez identifikatu beharko dute, mugikorreko *DetectAmor* izeneko aplikazioan dagoen | |

| |
|---|
| nerabeen elkarrizketa batean (10 minutu). Ondoren, talde handian adierazi beharko dituzte erantzunak eta horiek hautatzearen justifikazioa eman (20 minutu). |

**19. Taula:** *"Bai ala ez"* jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa.

| **14. JARDUERA: *"Filmeko pasarteak".*** | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Filmek eta kantuek maitasunaren kontzeptuan duten eragina adieraztea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Esposizio teknika: bideoa eta idatzia eztabaidarekin |
| **IRAUPENA** | 45 minutu |
| **OSASUN-AGENTEA** | Erizaina |
| **BALIABIDEAK** | Proiektorea, ordenagailua eta 14. jarduera burutzeko fitxa |
| **AZALPENA:**<br>*"A tres metros sobre el cielo"* filmaren laburpena ikusiko dute, baita film bereko pasarte batzuk irakurri ere (10 minutu). Ondoren, aurreko saioko taldeak desegin eta talde misto berriak eratuko dituzte. Talde txikietako ordezkariak ere aldatu egingo dira, beste ikasle batzuei aukera emanez. Behin talde txikietan elkartuta, pelikulan nahiz pasarteetan ageri diren maitasun erromantikoaren adibideak adieraziko dituzte (15 minutu). Azkenik, talde txikietako eztabaidak talde handiari helarazi eta horren inguruan eztabaidatuko da (20 minutu). | |

**20. Taula:** *"Filmeko pasarteak"* jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa.

| **15. JARDUERA: *"Kantuz kantu".*** | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Filmek eta kantuek maitasunaren kontzeptuan duten eragina adieraztea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Hausnarketarako teknika: testuaren analisia |
| **IRAUPENA** | 60 minutu |
| **OSASUN-AGENTEA** | Erizaina |
| **BALIABIDEAK** | Bost Mp4, bost entzungailu, proiektorea, ordenagailua eta 15. jarduera burutzeko fitxa |
| **AZALPENA:**<br>Aurreko talde txikietan mantenduko da ikasgela eta talde bakoitzari kantu bat egokituko zaio. Kanta entzuteko aukera izango dute erizainak talde bakoitzari eskainiko dion Mp4 eta entzungailu batzuen laguntzaz.<br>Kantua irakurri eta entzun ostean (10 minutu), emandako orrian ageri diren galderen laguntzaz hausnartuko dute talde txikian (20 minutu). Ondoren, taldeko ordezkariak ondorioztatutakoa aurkeztuko du talde handian eztabaida giroa sortuz (30 minutu). | |

**21. Taula:** *"Kantuz kantu"* jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa.

### **12. Eranskina** | 4. Gaiko jardueren azalpenak.

Saio honetan 4. Gaia eramango da aurrera. Hasiera baten, nerabeen arteko harreman mota ezberdinak landu nahi dira, horretarako honako jarduera hau proposatu da:

| **16. JARDUERA: *"Maitasuna ala kontrola?".*** | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Bikote nerabeen arteko harreman motak identifikatzea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Ikerketa teknika: galdetegia |
| **IRAUPENA** | 30 minutu |
| **OSASUN-AGENTEA** | Erizaina |
| **BALIABIDEAK** | Proiektorea, ordenagailua eta 16. jarduera burutzeko fitxa |
| **AZALPENA:** | |

| |
|---|
| Ikasleek galdetegi itxi baten bidez formulaturiko esaldi bakoitza maitasuna ala kontrola den adierazi beharko dute (10 minutu). Horretarako, era indibidualean jardungo dute. Ondoren, talde guztiaren artean zuzenduko da jarduera eta erantzunak argudiatuko dira (20 minutu). |

**22. Taula:** *"Maitasuna ala kontrola?"* jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa.

Aurreko jarduera osatzeko, bikote nerabeen arteko kasu batzuk formulatu dira ikasleek harreman mota horiek azter ditzaten:

| **17. JARDUERA: *"Eztabaidatu dezagun".*** | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Bikote nerabeen arteko harreman motak identifikatzea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Hausnarketa teknika: kasuak. |
| **IRAUPENA** | 65 minutu |
| **OSASUN-AGENTEA** | Erizaina |
| **BALIABIDEAK** | Proiektorea, ordenagailua eta 17. jarduera burutzeko fitxa |
| **AZALPENA:**<br>Aurreko saioko talde mistoak desegin eta talde txiki berriak eratuko dituzte. Talde txikietako ordezkariak ere aldatu egingo dira.<br><br>Talde bakoitzari bikote nerabe batzuen arteko harremana agertzen den kasu bat egokituko zaio. Hiru kasu daudenez eta guztira bost talde direnez, bi kasu errepikatu egingo dira. Era horretan, kasu berean iritzi berdinak edo desberdinak dauden ikusi ahal izango da.<br>Talde bakoitzak kasua irakurri eta azken orrian agertzen diren galderen laguntzaz irakurritakoa hausnartu beharko dute (20 minutu). Amaitzeko, talde handira helaraziko da diskusioa eta ordezkariek taldeetan hitz egindakoa partekatuko dute (45 minutu). | |

**23. Taula:** *"Eztabaidatu dezagun"* jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa.

Ikasle bakoitzaren autoezagutza jorratzea beharrezkoa dela ikusi da eduki nahi dituzten harreman motak aukeratzeko, horregatik jarraian dagoen jarduera planteatu da:

| **18. JARDUERA: *"Autoezagutza".*** | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Norberaren eta bikotea izango denaren lehentasunak, baloreak, gaitasun pertsonalak eta limiteak azaltzea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Hausnarketarako teknika: ariketa. |
| **IRAUPENA** | 60 minutu |
| **OSASUN-AGENTEA** | Orientatzailea |
| **BALIABIDEAK** | Proiektorea, ordenagailua eta 18. jarduera burutzeko fitxa |
| **AZALPENA:**<br>Jarduera hau bakarka burutzeko izango da. Ikasleek bi taula bete beharko dituzte zintzotasun osoz, autoezagutza lantzeko asmotan (40 minutu). Batak, norbanako bakoitzaren irudia isladatuko du eta besteak, bikotearena. Era honetan, norberak bere nahien, lehentasunen, baloreen eta zaletasunen inguruan hausnartzea bultzatuko du, baita bere bikotearenetan ere. Galderak erantzun ostean, nahi duenari aukera emango zaio idatzi duen zerbait talde handiari komunikatzeko eta eztabaida giroa sortzeko (20 minutu). | |

**24. Taula:** *"Autoezagutza"* jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa.

Saioari amaiera emateko, harreman osasuntsu bat eratzeko gai izan beharko dute ikasleek, hona hemen proposaturiko jarduera:

| 19. JARDUERA: *“3, 2, 1…Prest!”.* | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Harreman osasuntsuak eratzeko oinarrizkoak diren baloreak, jarrerak eta jokabide positiboak aditzera ematea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Gaitasun teknika: simulazio eraginkorra. |
| **IRAUPENA** | 90 minutu |
| **OSASUN-AGENTEA** | Erizaina |
| **BALIABIDEAK** | Proiektorea, ordenagailua eta 19. jarduera burutzeko fitxa |
| **AZALPENA:**<br>Ikasleak talde txikietan elkartuko dira eta erabilgarri izango dituzten osagaiekin errezeta bat eratu beharko dute. Osagaiak aukeratu eta hauek sukaldatzeko erabiliko den kopurua eta denbora adierazi beharko dituzte, errezetaren izena eta sukaldarien izenekin batera (45 minutu). Errezeta prest dagoenean, talde handiari erakutsi eta azaldu beharko diote urratsez urrats egindakoa. Osagai bakoitza zergatik eta zertarako aukeratu duten justifikatu beharko dute, baita osagai bakoitzaren kopuruaren arrazoia ere (45 minutu). | |

**25. Taula:** *“3, 2, 1… Prest!”* jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa.

**13. Eranskina** | 5. Gaiko jardueren azalpenak.

5.gaia Urnietako Kultur-etxeko aretoan landuko da eta hainbat agentek hartuko dute parte. Horien artean erizaina, orientatzailea, gizarte laguntzailea eta udaltzaingoa egongo dira. Honen bidez, genero indarkeriaren arloan, agente bakoitzak aspektu desberdinetan lagun dezaketela ikusiko dute ikasleek. Izan ere, emakumearen aurkako indarkeriaren aurrean zein errekurtso dauden jakitea garrantzitsua da; era horretan, azkartasunez jokatu daiteke beranduegi izan baino lehen. Horretarako, hiru jarduera proposatu dira:

| 20. JARDUERA: *“Baliabideak ezagutzen”.* | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Genero indarkeria kasuen aurrean profesional ezberdinen eskutik dauden baliabideak komunikatzea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Ikerketa teknika: ideia zaparrada. |
| **IRAUPENA** | 25 minutu |
| **OSASUN-AGENTEA** | Erizaina |
| **BALIABIDEAK** | Arbela, arkatz markatzailea eta 20. Jarduera burutzeko fitxa |
| **AZALPENA:**<br>Talde handian jorratuko den jarduera izango da. Ikasleek, emakumearen aurkako indarkeriaren aurrean zer egingo luketen galdetuko zaie. Horretarako, honako galdera formulatuko zaie: *demagun zure gertuko norbait genero indarkeria jasaten ari dela eta zuregana jo duela laguntza eske, etsita. Zer egingo zenuke laguntzeko? Norengana joateko aholkatuko zenioke?*<br>Galdera egin ostean, ikasle guztien parte hartzea eskatuko da. Bururatzen zaizkien ideiak esateko gonbita egingo da; bitartean, erizaina arbelean idazten joango da ikasleek esandakoa (10 minutu). Ondoren, ideia guztiak irakurri eta ideia nagusi batzuk finkatuko dira (15 minutu). | |

**26. Taula:** *“Baliabideak ezagutzen”* jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa.

| 21. JARDUERA: *“Baliabideak barneratzen”.* | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Genero indarkeria kasuen aurrean profesional ezberdinen eskutik dauden baliabideak komunikatzea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Esposizio teknika: idatzia eztabaidarekin. |
| **IRAUPENA** | 135 minutu |
| **OSASUN-AGENTEAK** | Erizaina, orientatzailea, gizarte laguntzailea eta udaltzaingoa. |

| | |
|---|---|
| **BALIABIDEAK** | Aulkiak eta mahaiak (agente nahiz ikasleentzat), arbela, arkatz markatzailea, proiektorea, ordenagailua eta 21. jarduera burutzeko fitxa |
| **AZALPENA:**<br>Talde txiki misto berrietan elkartuko dira ikasleak eta *Zer egin emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean? (34)* gidaliburua irakurriko dute 10. orrialdera arte. Irakurri ahala emakumearen aurkako indarkeriaren aurrean jarduteko dauden aukerak adieraziko dituzte puntuka (30 minutu). Gaiaren inguruan talde txikietan eztabaidatuko dute eta ondoren, talde handiari helaraziko diote diskusioa.<br>Jarraian, talde handian eztabaidatuko dira ikasleek adierazi dituzten aukerak eta esaten duten puntu bakoitzeko dagokion osasun-agentearen txanda izango da. Horrela, banaka-banaka genero indarkeria kasuen aurrean duten parte hartzea azalduko dute ikasleen kolaborazioa bultzatuz eta galderak egiteko aukera eskainiz (60 minutu).<br>Era honetan ikasleek genero indarkeriaren inguruan jarduteko dagoen aukera bakoitza pertsona konkretu batekin erlazionatuko dute eta errazagoa izango da dauden aukerez oroitzea gerora. | |

**27. Taula:** *"Baliabideak barneratzen"* jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa.

| **22. JARDUERA: *"Nola jokatu?".*** | |
|---|---|
| **HELBURUA** | Genero indarkeria kasuen aurrean profesional ezberdinen eskutik dauden baliabideak komunikatzea |
| **TEKNIKA-MOTA** | Hausnarketa teknika: kasuak. |
| **IRAUPENA** | 60 minutu |
| **OSASUN-AGENTEAK** | Erizaina, orientatzailea, gizarte laguntzailea eta udaltzaingoa. |
| **BALIABIDEAK** | Arbela, arkatz markatzailea, proiektorea, ordenagailua eta 22. jarduera burutzeko fitxa |
| **AZALPENA:**<br>Aurreko talde mistoetan mantenduko dira ikasleak eta talde bakoitzari genero indarkeriaren kasu bat emango zaio. Guztira bi kasu daudenez eta guztira bost talde direnez, kasuak errepikatu egingo dira. Era honetan, kasu berean iritzi berdinak edo desberdinak dauden ikusi ahal izango da.<br>Talde bakoitzak kasua irakurri eta azken orrian agertzen diren galderen laguntzaz irakurritakoa hausnartu beharko dute (25 minutu). Amaitzeko, talde handira helaraziko kasuak nahiz horiei emandako erantzunak eta osasun-agenteek parte hartuko dute (60 minutu). | |

**28. Taula:** *"Nola jokatu"* jardueraren azalpena eta xehetasunak. Iturria: propioa.



# TALDE DIANA

# - LAN KOADERNOA -

## 14 – 18. ERANSKINAK

**14. Eranskina | 1. Gaiko jarduerak**.

**1. GAIA – 2. Jarduera: *"Kontzeptuak elkar-lotzen"*.**

▶ Talde txikietan elkartu ostean, definitu kontzeptu bakoitza zuen hitzetan eta adibide bat ipini. Ondoren, talde handiari helarazi.

| **1. Sexismoa esaten diogu…** |
|---|
| |

| **2. Patriarkatza esaten diogu…** |
|---|
| |

| **3. Genero-rolak esaten diogu…** |
|---|
| |

**4. Genero-estereotipoak esaten diogu…**

**5. Berdintasun eza/desberdintasuna esaten diogu…**

**6. Feminismoa esaten diogu…**

**7. Matxismoa esaten diogu…**

**ADIBIDEAK:**

1. ……………………………………………………………………………………………………………………………………
2. ……………………………………………………………………………………………………………………………………
3. ……………………………………………………………………………………………………………………………………
4. ……………………………………………………………………………………………………………………………………
5. ……………………………………………………………………………………………………………………………………
6. ……………………………………………………………………………………………………………………………………
7. ……………………………………………………………………………………………………………………………………

Iturria: propioa.

**1. GAIA – 3. Jarduera*: "Asmakizuna".***

▶ Ondorengo bideoa ikusi ostean, Kike Amonarrizek proposaturiko asmakizunari erantzun. Kontuan hartu bakarka burutzeko jarduera dela.

**"Euskara hizkuntza sexista al da?"**




Iturria: propioa. Bideoa eskuragarri: https://www.youtube.com/watch?v=bZwp3jsAJB4

**1. GAIA – 4. Jarduera:** ***"Zure esanetara".***

▶ Jarraian agertzen den film laburra ikusi ostean, adierazi sistema patriarkalaren ezaugarriak eta matxismoaren nagusitasuna non antzematen den (era indibidualean). Honen ostean, talde txikietan argudiatu bakoitzaren iritziak eta adostasun batera heldu. Azkenik, talde handiari helarazi talde txikietan adostutakoa. *Gogoratu: sistema patriarkala indibidualista*, *biolentoa, lehiakorra eta autoritarioa da*.

***"El orden de las cosas"***




Iturria: propioa. Bideoa eskuragarri: https://www.youtube.com/watch?v=hfGsrMBsX1Q

**1. GAIA – 5. Jarduera:** ***"People".***

▶ Jarraian agertzen den horma-irudia aztertu eta eztabaidatu talde txikietan. Ondoren, iritzi amankomuna adierazi talde handian. Zein jokaera diskriminatzaile mota (arraza, sexua, erlijioa, klase soziala, etab.) dela esango zenuke? Zergatik?




Iturria: propioa.

**1. GAIA – 6. Jarduera: *“Rolak eta estereotipoak”.***

▶Ipini dagokion zutabean jarraian agertzen diren ezaugarri pertsonalak, gaitasunak eta erantzukizunak. Guztira hiru zutabe daude: emakumeena, gizonena eta biei dagokiena. Ondoren talde handiari helarazi erantzunak.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Samurtasuna | Ausardia | Ahultasuna | Oldarkortasuna | Edertasuna |
| Etxekoandrea | Zientzia eta Teknologia | Sentikortasuna | Men egitea | Leuntasuna |
| Ekimena | Pasibotasuna | Autoritatea | Nagusitasuna | Esparru soziala |
| Hoztasuna | Ugaltze-rola | Kirolaria | Indartsua | Lehiakortasuna |
| Txukuna | Goxoa | Axolagabea | Arduratsua | Manipulatzailea |
| Seme-alaben heziketa | Familiako sostengu ekonomikoaren arduraduna | | Familiako laguntza emozionalaren arduraduna | |

| EMAKUMEA | GIZONA | EMAKUMEA ETA GIZONA |
|---|---|---|
| | | |

Iturria: (27). Egingizun propioa.

**15. Eranskina | 2. Gaiko jarduerak**.

**2. GAIA – 7. Jarduera: *"Definitu".***

▶ Talde txikietan elkartu eta adierazi *genero indarkeria* kontzeptuarekin burura etortzen zaizkizun ideiak. Ondoren, talde handian genero indarkeria terminoari dagokion esaldia formulatu.

**IDEIA ZAPARRADA:**

| |
|---|
| |

**DEFINIZIOA:**

| |
|---|
| |

Iturria: propioa

**2. GAIA – 8. Jarduera:** ***“Komunikabideetako berriak”.***

▶ Egokitu zaizuen albistea irakurri eta ideia nagusiak azpimarratu era indibidualean. Ondoren, zuen albiste bera duen ikaskideekin elkartu, ideia nagusiak elkarri adierazi eta ondorio amankomunak eratu. Azkenik, talde handiari helarazi talde txikietan landutakoa.

**2018/03/07 – 1. ALBISTEA**

**Sexu-abusuen edo tratu txarren biktimek % 6,5 gora egin dute Euskadin.**

Bikotekidearen edo bikotekidearen eskutik indarkeria matxista, familia barruko indarkeria ala sexu askatasunaren aurkako delituak jasan zuen emakumeen kopuruak % 6,5 gora egin zuen iaz, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn). 2016an baino **246 gehiago** izan ziren, 4.020, hain zuzen ere.

**Estefania Beltran de Heredia** Segurtasun sailburuak agerraldia egin du gaur Eusko Legebiltzarrean, Euskadiko delinkuentziaren inguruko 2017ko txostena aurkezteko.

Sailburuak zehaztu duenez, bikotekide edo bikotekide ohien indarkeriagatik salaketek **(3.758 kasu) % 4,45** gora egin zuten, familia barruko indarkeriagatik **% 8 (929)** eta sexu askatasunaren kontrako delituek (ukituak, abusuak eta bortxaketak, besteak beste) **% 32,7 (312)**.

**4.999 salaketa**

Guztira, mota honetako delituen salaketek % 6,5 gora egin zuten, emakume biktimen kopurua areagotu zen proportzio berdinean, baina salaketak gehiago izan ziren (4.999), emakume batzuek salaketa bat baino gehiago aurkeztu zutelako.

Ertzaintza bildutako informazioa da. Horren berri urtarrilean eman zuten dadgoeneko, baina gaur sailburuak aurkeztutako txostenean lehen aldiz 25.000 biztanle baino gehiago dituzten 14 herritako udaltzaingoen datuak barneratu dituzte.

Albistea eskuragarri: http://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/osoa/5448308/sexuabusuen-tratu-txarren-biktimek-65-egin-dute-euskadin-2017an/

## 2018/03/12 – 2. ALBISTEA

### 7.000 salaketa baino gehiago indarkeria matxistagatik, Hego Euskal Herrian.

2017an 7.028 salaketa jarri ziren Hego Euskal Herriko epaitegietan **indarkeria matxistagatik**, 19 baino gehiago egunean.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Etxeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokiak argitaratutako datuen arabera, 767 salaketa gehiago izan ziren 2017an, 2016an baino % 11 gehiago.

Salaketa-kopuruak **Nafarroan** egin du gora gehien, % 22,2 gehiago jarri baitituzte (1.838). 1.838 horietatik 1.803 indarkeria matxistaren biktimek jarri zituzten. Bestalde, 197 emakumek (% 13,4k) ikertuaren aurka lekuko salatzaile gisa ez deklaratzeko eskubidea erabili zuten, % 27,4 gehiago. Halaber, 10.000 emakumeko, indarkeria matxistaren biktima tasa % 55,5 izan zen, 2016ean baino gehiago.

**EAE**ko datuei dagokienez, salaketa-kopuruak % 9 egin zuen gora, eta 5.224 biktima zenbatu ziren (2016an baino % 9,5 gehiago). Akusatuaren aurka ez deklaratzeko eskubidea erabili zuten 665 emakumek, eta azkenik, 10.000 emakumeko, % 46,34koa izan zen biktima tasa.

**Espainiako estatuan**, berriz, % 16,4 egin zuen gora salaketa-kopuruak, 166.620 aurkeztu baitziren iaz; 2016an, ordea, 142.893 izan ziren. Orain dela 20 urte datu horiek biltzen hasi zirenez gero ezagutu den **kopururik handiena** da. Indarkeria matxistaren biktimek 158.217 salaketa aurkeztu zituzten; 16.464k lekuko gisa ez deklaratzea erabaki zuten, eta azkenik, 10.000 emakumeko, % 66,65ek jasan zuten indarkeria matxista.

Angeles Carmona Behatokiko presidentearen iritziz, "emakumearen aurkako jarrera bortitzak azaleratzea positiboa den arren, datu horiek onartezinak dira, gizarte heldu eta zibilizatu bati ez dagozkionak".

Albistea eskuragarri: http://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/osoa/5458528/indarkeria-matxistagatik-jarritako-salaketak-2017-datuak-eae-eta-nafarroa/

## 2018/03/10 – 3. ALBISTEA

### Gizon bat atxilotu dute Bilbon komunetan emakumeak mugikorrarekin grabatzeagatik.

**40 urteko gizonezko bat atxilotu du Ertzaintzak** Bilbon, Zubiarte merkataritza-guneko komunetan bere sakeleko telefonoarekin emakumezkoak grabatzeagatik, Ertzaintzak jakinarazi duenez.

Gertaera joan den ostiralean jazo zen. Emakumezkoen komunetan zegoen gazte batek eskuko telefono bat ikusi zuen atearen gainean: komun barrua grabatzen ari zen. Gaztea komunetik atera zen, eta bere lagunek lagunduta, grabaketa hori egiten ari zen **gizonezkoa atxikitzen saiatu zen. Horrek, ordea, aurre egin, eta ihes egitea lortu zuten.**

Orduan, neskak oihuka hasi ziren merkataritza-zentroan, eta bertan zegoen beste gazte talde batek gizonezkoa harrapatzea lortu zuen.

Ertzainek ustezko erasotzailearen sakeleko telefonoa miatu dute, eta **komunetan grabatutako hainbat bideo aurkitu dituzte**. Ondorioz, atxilotu egin dute. Gazteak, berriz, osasun zentro batean artatu dituzte, eta horietako hiruk salaketa aurkeztu dute.

Ertzaintzak ikerketa zabaldu du, biktima gehiago egon daitezkeelako.

Albistea eskuragarri: http://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/osoa/5454889/gizon-atxilotu-dute-bilbon-komunetan-emakumeak-mugikorrarekin-grabatzeagatik/

## 2018/01/07 – 4. ALBISTEA

### Javier de Pedro Realeko jokalari ohia atxilotu dute, bikotekidea jotzea leporatuta.

Javier de Pedro Realeko jokalari ohia atxilotu zuten larunbat goizean, bikotekidea jotzea leporatuta. Donostiako osasun zentro batean artatu behar izan zuten emakumea, lesioak zituelako.

Donostiako ostatu batean jazo zen gertaera, larunbat goizaldean; futbolari ohiaren atxiloketa, berriz, Pasaian egin zuten, ikerketaren iturriek EFE agentziari jakinarazi diotenez.

Emakumeak salaketa jarri ostean, Donostiako guardiako epailearen esku jarri zuten de Pedro larunbat goizean, eta aske utzi zuen, karguekin.

2010ean indarkeria matxistagatik 51 egunez gizarte lanak egitera kondenatu zuten de Pedro, bikotekide ohia mehatxatu eta iraintzeagatik.

Albistea eskuragarri: http://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/osoa/5320160/javier-de-pedro-realeko-jokalari-ohia-atxilotuta-bikotekideari-jotzea-egotzita/

**2018/01/09 – 5. ALBISTEA**

**016 genero indarkeriaren biktimentzako**
**telefono zerbitzuak gizonak ere artatuko ditu.**

Indarkeria matxistaren biktimei laguntza emateko Espainiako Gobernuak martxan duen **016 telefono zerbitzuak** gizonak ere artatuko ditu hemendik aurrera. "Berdintasunari, genero indarkeriaren prebentzioari, eta bikoteen arteko banaketa edota dibortzio prozesuei eta seme-alaben zaintzari buruzko informazioa" emango zaie gizonei, **Espainiako Gobernua**k onartu berri duen aldaketa baten ondorioz.

Hain zuzen, zerbitzua esleitzeko baldintza-agiria berritu du Mariano Rajoyren Exekutiboak, eta hor daude jasota aldaketak. Joan den abenduaren 26an onartu zuen txostena Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetarako eta Berdintasuneko Ministerioak.

Baldintzen artean, 016 zerbitzuak gizonei eskainiko dien aholkularitza da berrikuntza nagusia. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko informazioa emango zaie, hala eskatzen duten gizonei. Halaber, indarkeria matxistaren prebentziorako neurrien berri ere emango zaie.

Banaketa edo dibortzio prozesuen inguruko eta haurren zaintzari buruzko informazioa ere erraztuko zaie telefono horretara deitzen duten gizonei.

**Kritikak**

Hautsak harrotu ditu Espainiako Gobernuaren erabakiak, oposizioko alderdien eta emakumeen elkarteen artean.

**Espainiako Emakume Aurrerakoien Federazioak** erabakia atzera botatzeko eskatu dio Espainiako Gobernuari. Orain arte bezala, 016 telefonoa soilik genero indarkeriaren biktimak artatzeko izatea eskatu dute.

**PSOE**k ere gogor kritikatu du 016 telefonoak gizonezkoen deiak ere artatzea. Angeles Alvarez PSOEko Berdintasun bozeramaileak esan duenez, zerbitzu horren jatorrizko funtzioa erabat distortsionatzen dute baldintza berriek.

Albistea eskuragarri: http://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/osoa/5324681/016-genero-indarkeriaren-biktimentzako-telefonoak-gizonak-ere-artatuko-ditu/

Iturria: propioa. Egikizun propioa.

**2. GAIA – 9. Jarduera: *"Zikloa".***

▶ Jarraian agertzen den grafikoak indarkeriaren zikloa irudikatzen du. Aztertu etapa bakoitzaren ezaugarriak eta talde txikian azaldu elkarri. Jarduerarekin amaitzeko, talde handira erraztuko da talde txikietan hitz egindakoa. Genero indarkeriaren zikloa azaltzeko ereduarekin bat al zatoz? Zikloa behin eta berriro biraka jarduten duela iruditzen zaizu?




Iturria: (31). Eginkizun propioa.

**2. GAIA – 10. Jarduera:** ***“Irakiten dagoen igela”.***

▶ Segidan indarkeriaren igoaldia nola gauzatzen den ikusi daiteke era ilustratuan. Hori aztertu ostean ikusi ondorengo bideo laburra. Azkenik, talde txikietan elkartu eta prestatu indarkeriaren igoaldiaren azalpena talde handiari helarazteko.




Iturria: propioa.

***"La rana hirviendo"*** Eskuragarri: https://www.youtube.com/watch?v=sep56vtvhOk




Iturria: Peña EM, Ramos E, Luzón JM, Recio P. Andalucía previene. Sexismo y Violencia de Género en la Juventud [Internet]. Instituto Andaluz de la Mujer. Consejería para la Igualdad y Bienestar Social. Junta de Andalucía. Andaluzia; 2011 [kontsulta data: 2018ko Martxoak 12]. Eskuragarri: http://www.juntadeandalucia.es/iam/catalogo/doc/iam/2011/143337353.pdf

**2. GAIA – 11. Jarduera: *"Motak hautematen".***

▶ Talde txikietan elkartu eta osatu gurutzegrama emakumearen aurkako indarkeria gauzatzen den elementuak kontuan hartuz.




Iturria: propioa.

**1. HORIZONTALA:** bikotea beldurtzeko helburuarekin ingurunea kaltetzeko burutzen diren asmo txarreko ekintzak. Indarkeria fisikoa adierazteko beste era bat dela kontsideratzen da. Emakumeak ez ditu ondorio zuzenak jasaten. *Adierazpenak*: objektuak apurtzea, hormak kolpatzea, keinu oldarkorrak egitea, zikintzea eta nahaspilatzea, etab.

**2. HORIZONTALA:** biktima isolatzea du oinarri, baliabide sozialak nahiz familiarrak blokeatuz. Jarrera horiek kalte psikologikoa eragiten dute. *Adierazpenak:* Jelosiak, desleialtasun susmoak, traizio emozionalak, bikoteari muturreko eskakizuna eskaini beharreko arretarekiko eta denborarekiko, etab.

**3. BERTIKALA:** baliabide ekonomikoetan gizonak emakumearekiko duen kontrola da. Indarkeria mota hau ohikoagoa izaten da helduetan; nerabezaroan gertatzea zailagoa izaten da. Izan ere, adin horretan ez da normala izaten gastuak, bizilekua eta ekonomia partekatzea. *Adierazpenak:* bikoteak lan egitea debekatzea, erabaki ekonomikoak bikotearekin ez kontsultatzea eta bikoteak erabiltzen duen dirua kontrolatzea, etab.

**4. HORIZONTALA:** emakumearen sufrimendu psikologikoa edo emozionala eragiten dituen ekintzak edo jarrerak dira. Bere baitan hitzezko alderdiak eta aspektu emozionalak hartzen ditu. Beste indarkeria motekin agertu ohi da, baina identifikatzen zailena da. *Adierazpenak:* jelosiak, irainak, mehatxuak, isolamendu soziala, manipulazio afektiboa, barregarri uztea, askatasun-gabetzea, errudun sentiaraztea, autoestimu galera, iritziak deskalifikatzea eta gehiegizko kontrola (janzkeran, denboran eta ekintzetan), etab.

**5. BERTIKALA:** norberaren borondatearen aurka desiratu gabeko edozein sexu-harreman (ukituak, erasoak, koitoa, etab.) izatera behartzean datza. Horren barruan hainbat jokabide bereizi daitezke: agresio, abusu eta eraso sexuala, probokazio sexuala, etab. *Adierazpenak*: bultzadak, kolpeak, zaplaztekoak, jipoiak, harreman sexualen inguruan erabakitzeko aukerarik ez izatea, antisorgailuak ezin erabili izatea, emakumeak nahiak eta desioak ezin espresatu ahal izatea, harreman sexualak izatera behartzea emakumeari, etab.

**6. BERTIKALA:** emakumearen osotasunaren edo biziaren aurka gauzatutako edo gauzatu nahi den kalte fisikoari deritzo. Bikoteak edo bikote ohiak gauzatutako indarkeria mota ezagunena da, bere inpaktua emakumearen gorputzean nabarmentzen baita askotan. Adierazpenak: zaplaztekoak, bultzadak, kolpeak, erredurak, hozkadak, etab.

Iturria: (4, 6-7, 12-14).

▶ Talde txikietan elkartu eta osatu gurutzegrama emakumearen aurkako indarkeria gauzatzen den esparrua aintzat hartuz.




Iturria: propioa.

**1. HORIZONTALA:** familiako kide batek emakumearen aurka burutzen duen indarkeria fisikoari, psikologikoari, sexu bidezkoari eta ekonomikoari deritzo. Betiere, bikotea edo bikote ohia aintzat hartu gabe, bizikidetza egon edo ez eta gertaera gertatu den eremu fisikoa alde batera utzita.

**2. HORIZONTALA** eta **3. BERTIKALA**: emakumearen bikoteak edo bikote ohiak edota afektibitatea duen edo izan duen pertsonak eragindako indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexu bidezkoa, ekonomikoa eta soziala barne hartzen ditu.

**4. BERTIKALA**: gizon batek erlazio sozialen inguruneko emakume bati eragindako indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexuala da. Gizona botere nagusitasunaz baliatzen da indarkeria gauzatzeko.

**5. HORIZONTALA** eta **6. BERTIKALA**: lan edo ikastola eremuko gizon batek emakumearen aurka gauzatutako indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexu bidezkoa (eraso sexuala). Lan edo ikastola eremuan nahiz kanpoan gauza daiteke, baita lan edo eskola ordutegian nahiz ordutegitik kanpo.

Iturria: (11).

**2. GAIA – 12. Jarduera: *“Multidimentsionala”.***

▶ Ikasle bakoitzari ausaz aukeratutako bi arrisku faktore emango zaizkizue. Bi arrisku faktoreen artean bat hautatu eta hautapena justifikatu. Horren ostean, talde txikietan elkartu eta arrisku faktore bakarra hautatu. Beste arrisku faktore bat bururatuz gero komodinean idatzi.

Alkoholarekiko edo zilegi ez den drogekiko abusu edo dependentzia (biktima izateko arriskua handitzen du).

Familiaren egoera ekonomikoaren okertzea (Adib: lana galtzea).

Gizonek emakumearekiko duten nagusitasun sinesmena.

Bazterturik dauden talde sozialen parte izatea.

Tratu txarren aurrekariak edo haurtzaroko indarkeria.

Tentsio eta gatazka familiarrak.

Iturria: propioa.

Eremu patriarkalean oinarritutako genero-rolak.

Bulkadak kontrolatzeko arazoak.

Banaketa eta dibortzioak.

Buruko asalduren agerpena.

Jelosiak.

Haurdunaldia.

K

**16. Eranskina | 3. Gaiko jarduerak**.

**3. GAIA – 13. Jarduera: *"Bai ala ez?".***

▶Andaluziako Emakumearen Erakundeak duen mugikorreko *DetectAmor* izeneko aplikazioan, erronka bat dute zuentzat. Gai izango al zarete okerrak diren ideiak (maitasunaren mitoak) identifikatzeko? Adierazi maitasuna ez dena eta justifikatu.










¡MARCA LO QUE NO ES AMOR!
...te he dicho q no me escribas, vale? ¡¡ sta vez te has pasado mazo!!
Iba a dejarlo todo x ti!!..xq te kiero d verdad....
¡¡y me haces esto!! vete a la mierda!!
No te pongas así...ok, me he pasado
...y sé q te hago daño, pero es pq te kiero...
Sabes q el amor duele. ¿no estás exagerando 1poco?
¡xo q morro tienes!..
¡MARCA LO QUE NO ES AMOR!
No exagero..Yo, XQ TE QUIERO, dejé d ver a mis colegas, el módulo,..¿y tú, q sacrificio has hexo x mi,eh?
¡¡NINGUNO!!..déjame en paz!..no kiero ná de ti!
Te llamo...¡cógeme el tlf!
¡Si de verdad me kieres podemos superar sto y cualquier cosa!
No kiero hablar ahora
Sé q el amor verdadero lo aguanta todo
Xo sta vez te has pasao
¡MARCA LO QUE NO ES AMOR!
Xo sta vez te has pasao
Veeenga...si me quieres me tienes q perdonar noo?
No te entiendo! Sp diciéndome q nuestro AMOR puede con td
y ahora x una chorrada te cabreas así.... ¡cógeme el tlf o me planto en tu casa!
¡Qué no,..q necesito mi tiempo!...déjame!
Fin

Iturria: (33).

**3. GAIA – 14. Jarduera: *“Filmeko pasarteak”.***

▶ Filmaren laburpena ikusi eta irakurri ondorengo pasarteak bakarka. Ondoren, talde txikietan elkartu eta adierazi pelikulan nahiz pasartean ageri diren maitasun erromantikoaren adibideak. Azkenik, diskusioa talde handiari helarazi eta eztabaidatu.

**"A tres metros sobre el cielo"** Eskuragarri: https://www.youtube.com/watch?v=dMyOOzDnTR0




→ *“Las chicas como Babi se esmeran en sus estudios, hablan del último grito en moda y se preparan para encontrar al amor de sus vidas; los chicos como Hache prefieren la velocidad, la violencia, el riesgo, las motos y la camaradería de las bandas… Pertenecen a mundos distintos, pero el amor les hará cambiar: ellas se volverán más salvajes; ellos más tiernos...”*

→ *“¿Qué te parece ese que te acompañó anoche? ¿Te gusta?… ¿Me gusta? ¿Bromeas? ¿Estás loca? ¿Cómo puede gustarme uno así? Es un bestia. ¿Sabes lo que hizo ayer por la noche? Él y sus amigos destrozaron el coche de Brandelli, después empezaron a golpear a Chicco; entonces se detuvo el señor Accado que pasaba por allí y trató de separarlos y ese tipo, ese animal, le pegó también a él. ¿Cómo puede gustarme uno que usa la cabeza para golpear con ella la cara de los demás en lugar de para pensar?*

→ *Babi se balancea. Hache se le acerca. Ella alza las manos, se las pone delante de la cara y baila guapísima. No ha visto nunca unos ojos tan ingenuos. Esa boca suave, color pastel, esa piel aterciopelada. Todo en ella parece frágil pero perfecto...*

Iturria: Peña EM, Ramos E, Luzón JM, Recio P. Andalucía previene. Sexismo y Violencia de Género en la Juventud [Internet]. Instituto Andaluz de la Mujer. Consejería para la Igualdad y Bienestar Social. Junta de Andalucía. Andaluzia; 2011 [kontsulta data: 2018ko Martxoak 12]. Eskuragarri: http://www.juntadeandalucia.es/iam/catalogo/doc/iam/2011/143337353.pdf

**3. GAIA – 15. Jarduera: *"Kantuz kantu".***

▶ Talde txikietan elkartu eta egokitzen zaizuen kantua entzun ostean, jarraian ageri diren galderen laguntzaz zure iritzia adierazi. Ondoren, talde handian aurkeztu ondorioztaturikoa.

**1. Taldea**: Hesian **–** *Behar zaitut*

Nire zilborretik altxatu ditut begiak,
gaur konturatu naiz ze min egiten duen egiak.

Ispilu faltsu hontatik kendu dut begirada,
ez zait batere gustatu orain ikusten dudana.

Nire zilborretik altxatu ditut begiak,
gaur konturatu naiz ze min egiten duen egiak.

Ispilu faltsu hontatik kendu dut begirada,
ez zait batere gustatu orain ikusten dudana.

Alferrik bada ere barkamena eskatzea,
behar dugunaren bila aldiz ezagutzea.

Horrekin zerbait lortuko nuela jakinez gero,
nire zainak moztuko nituzke zure mina baretzeko.

Ta gaur, ondoan behar zaitut berriro, ez naiz nire bizitzaren jabe
Zaila egiten zait aurrera egitea, negar batean erori gabe.

Nire zilborretik altxatu ditut begiak,
gaur konturatu naiz ze min egiten duen egiak.

Ispilu faltsu hontatik kendu dut begirada,
ez zait batere gustatu orain ikusten dudana.

Ez da gezurra izan sentitzen dudan guztia,
ezta zugatik emango nukela nire bizia.

Jakin ezazu inoiz gehiago ez dizut hutsik egingo,
ta nire barruan izango zarela betiko.

Ta gaur, ondoan behar zaitut berriro, ez naiz nire bizitzaren jabe
Zaila egiten zait aurrera egitea, negar batean erori gabe (bis).

Kantua eskuragarri: https://www.youtube.com/watch?v=u9epruigL68

**2. Taldea:** Malu **–** *Blanco y negro*

Sé que faltaron razones,
Sé que sobraron motivos,
Contigo porque me matas,
Y ahora sin ti ya no vivo…

Tú dices blanco, yo digo negro
Tú dices voy, yo digo vengo
Miro la vida en color y tu en blanco y negro…

Dicen que el amor es suficiente,
Pero no tengo el valor de hacerle frente
Tú eres quien me hace llorar,
Pero solo tú me puedes consolar.

Te regalo mi amor, te regalo mi vida,
A pesar del dolor eres tu quien me inspira,
No somos perfectos, solo polos opuestos

Te amo con fuerza te odio a momentos…
Te regalo mi amor te regalo mi vida,
Te regalo el sol siempre que me lo pidas,
No somos perfectos solo polos opuestos
Mientras sea junto a ti siempre lo intentaría,
Y que no daría?

Me odias, me quieres, siempre contracorriente…
Te llevo en mi mente desesperadamente,
Por más que te busco,
Eres tú quien me encuentra…

Dicen que el amor es suficiente,
Pero no tengo el valor de hacerle frente
Tu eres quien me hace llorar,
Pero solo tú me puedes consolar.

Te regalo mi amor, te regalo mi vida,
A pesar del dolor eres tú quien me inspira,
No somos perfectos, solo polos opuestos
Te amo con fuerza te odio a momentos…
Te regalo mi amor te regalo mi vida,
Te regalo el sol siempre que me lo pidas,
No somos perfectos solo polos opuestos
Mientras sea junto a ti siempre lo intentaría,
Y que no daría? si eres mi mundo
Si con tus manos curas mis heridas, que no daría
Si solo a tu lado, puedo llorar...

Kantua eskuragarri: https://www.youtube.com/watch?v=cbYp1ZB5cGg

**3. Taldea:** Antton – *Iragana ahaztuta*

Ez dakit nondik hasi,
ezta nola idatzi,
zu gabe ezin dudala
inolaz ere bizi,
nola adierazi.

Jarria naiz pentsatzen
zuzen ote nabilen,
baina ezin zaitut ahaztu,
ez zaitut burutik kentzen,
arren utzidazu zurea izaten.

Itzul gaitezen biok,
amodioaren mundura,
zoriontsu izango gara
behin izan zen modura,
has gaitezen hutsetik
bihotzak elkartuta,
oraina biziz eta
iragana ahaztuta...

Iragana joan zen
zergatik ez zu ahazten,
bi aldiz harri berean ez omen da jausten,
behintzat saia gaitezen,
zu zaitut bizi gogo,
inor baino maitego,
zu gabe bizitza honetan ezin dut gehiago,
zugatik maitea txoratzear nago.

Itzul gaitezen biok
amodioaren mundura,
zoriontsu izango gara
behin izan zen modura,
has gaitezen hutsetik
bihotzak elkartuta,
oraina biziz eta
iragana ahaztuta...
iragana ahaztuta... (Bis)

Kantua eskuragarri: https://www.youtube.com/watch?v=jotuB4CGEfY

**4. Taldea:** Antonio Orozco – *Estoy hecho de pedacitos de ti*

Fue la verde luz
Que sale de tus ojos
Esa luz que alumbra la distancia entre tú y yo
Que llena de esperanzas mi renglón
Esa luz que recompone lo que compone, esa luz
Fue tu abrazo añil
El que pinta con caricias el candil
Que alumbra cada nota de mi voz

Mimando con susurros el temblor
De este amor, que se desboca
Si lo provocas, este amor
Fue un abrazo de tu amor con guantes
Con sonrisas que me regalabas
El saber que sin ti no soy nada
Yo estoy hecho de pedacitos de ti

De tu voz, de tu andar
De cada despertar
Del reír, del caminar
De los susurros de abril
Del sentir, del despertar
Aunque la noche fue gris
Del saber que estoy hecho
De pedacitos de ti

Fue la verde luz
La dueña de mis noches
Esa luz que entrega cada pétalo de amor
Que aspira a las sonrisas con sabor
Esa luz que recompone mis emociones, esa luz
Fue un abrazo de tu amor con guantes
Con sonrisas que me regalabas,
El saber que sin ti no soy nada

Yo estoy hecho de pedacitos de ti
De tu voz, de tu andar
De cada despertar
Del reír, del caminar
De los susurros de abril
Del sentir, del despertar
Aunque la noche fue gris
Del saber que estoy hecho
De ti

Kantua eskuragarri: https://www.youtube.com/watch?v=zvisX51IXZo

**5. taldea:** Mikel Markez – *Zure begiek*

Zure begiek mintzen naute
zure ahoak beldurtzen nau
niretzako nahi zinduket
sentimendu mugaezina.

Urontzi bat naiz,
noraezean dabilen urontzia.
Mila arroken kontra jo dut
baina beti korronteak
zure kostaldera narama.

Zure begiek mintzen naute
zure ahoak beldurtzen nau
niretzako nahi zinduket
sentimendu mugaezina.

Zu gabe ez naiz ezer.
Zu gabe zertarako bizi.
Bizitza hontan ditudan
helburu guztiak
ez dira ezer lortu zeren eta...
zurekin konpartitzen ez baditut

Zure begiek mintzen naute
zure ahoak beldurtzen nau
niretzako nahi zinduket
sentimendu mugaezina.

Kantua eskuragarri: https://www.youtube.com/watch?v=ffQaevvDQsM

Iturria: propioa.

## GALDERAK:

- Zein iritzi duzu kantuaren izenburuaz?
- Zein mezu transmititzen du kantuak? Positiboa al da?
- Pertsona batekiko hainbesterainoko mendekotasuna izatea, bera gabe ez garela ezer sentitzeraino, normala al da?
- Kantuak pertsona edo egoera zehatzekin erlazionatzen ditugu? Zergatik?
- Bikote harremanetan eragiten al dute kantuek? Nola? Zergatik?

Iturria: (32). Moldatua.

**17. Eranskina | 4. Gaiko jarduerak**.

**4. GAIA – 16. Jarduera: *"Maitasuna ala kontrola?".***

▶ Jarraian agertzen diren esaldiak irakurri eta erantzun era indibidualean; maitasuna ala kontrola da? Ondoren, guztien artean zuzenduko eta argudiatuko dira erantzunak.

**GALDETEGIA:**

| **Hau gertatzen denean…** | **MAITASUNA** | **KONTROLA** |
|---|---|---|
| Erraztasunarekin haserretzen da, oihukatuz eta irainduz. | | |
| Manipulatzen saiatzen da. | | |
| Nire askatasuna eta erabakitzeko gaitasuna errespetatzen ditu, nitaz kezkatzen den arren. | | |
| Gatazka momentuetan azken hitza berak eduki behar du; nire iritzia ez du kontuan hartzen. | | |
| Haserretzen denean hitz egiteaz uzten nau egun batzuetan. Gainera, ez dit barkamenik eskatzen, beti nik eskatu behar izaten diot. | | |
| Nire proiektuak eta erabakiak baloratzen ditu; errespetatuz eta lagunduz. | | |
| Nire harreman sozialak errespetatzen ditu eta eskaintzen didaten laguntzaz pozten da. | | |
| Ni agertzen naizen bideo laburrak ditu eta sarean zintzilikatu dituela esaten mehatxatzen nau. | | |
| Beldurra transmititzen nau. | | |
| Nigan konfiantza osoa du, baita bion arteko harremanean ere. | | |
| Haserretzen denean, mehatxatu eta kolpatu egiten nau. | | |
| Bion oniritzia jasota izaten ditugu sexu-harremanak. | | |
| Arropa jakin batzuk jaztea debekatzen nau. | | |
| Nire mugikorra ikusi nahi izaten du, norekin hitz egiten ari naizen jakiteko. | | |
| Ideia matxistak ditu. | | |
| Gatazkak izan arren, gure harremana maitasunean, laguntasunean, errespetuan, berdintasunean oinarritzen da. | | |
| Sexu-harremanak izatean, berak erabakitzen du non eta nola. | | |
| Bere interesak eta desioak jarraitzen ditu, baina nireak aintzat hartuz. | | |
| Beti jakin nahi izaten du egunean zehar egin dudan guztia. | | |

Iturria: (30). Moldatua.

## 4. GAIA – 17. Jarduera: *“Eztabaidatu dezagun”.*

▶ Talde bakoitzari egokitzen zaizuen kasua irakurri eta azken orrian agertzen diren galderen laguntzaz eztabaida sortu taldean. Amaitzeko, talde handira helarazi diskusioa.

### 1. KASUA

Anek eta Ikerrek sei hilabete daramate elkarrekin. Larunbat gauean, bere lehengusinak sorpresaz antolatu zuen festara joan zen Ane eta Iker haserretu egin zen, ez baitzion ezer esan.

Hurrengo goizean, Anek esan dio Ikerri bere lehengusinak berandu abisatu ziola eta bi aldiz pentsatu gabe lagun batzuekin animatu zela festara. Gainera, ederki pasa zuela aitortu dio, aspaldi ikusi gabeko institutuko ezagun asko aurkitu zituelako.

Ikerrek festara joan ziren mutilak zeintzuk ziren galdetu dio, era probokatzailean jantzita joango zela eta horregatik hurbildu zitzaizkiola mutilak. Horretaz gain, mugikorreko mezuak erakusteko eskatu dio, atzo festan egon ziren mutilen batekin hitz egiten ari ote zen baieztatzeko.

Anek behin eta berriz esan dio gauzak asmatzen ez hasteko, bere onetik aterako duela horrela jarraitzen badu. Gainera, bere mutila izanagatik ez dio eskubide gehiago ematen era horretan tratatzeko.

Ikerrek, ordea, asko axola zaiolako eta maite duelako jartzen dela horrela aitortu dio. Anek benetan maiteko balio ez liokeela horrenbeste haserrearaziko, baina bide horretatik jarraitzen badute harremanak ez duela etorkizunik izango.

Hitz horiek esatean, Ane beldurtu egin da, ez du nahi harremana uzterik; horregatik, barkamena eskatu dio, hurrengo batean lehenago abisatuko diola berarekin joan ahal izateko.

Iturria: (32). Moldatua.

### 2. KASUA

Udanek eta Mikelek hilabete batzuk daramatzate bikote moduan elkarrekin ateratzen. Udanaren laguna den Mariak, festa batera gonbidatu du bikotea hurrengo asteburuan bere urtebetetze eguna dela eta.

Festa egunean, Udane eta Mikel Mariarengana hurbiltzen dira zoriontzeko. Udane Mariarekin hitz egiten ari den bitartean, Mikel edateko zerbaiten bila joan da. Momentu hartan bertan, Udane bere lehengo mutil-lagun batekin topatu da; aspaldi zen ikusten ez zuela eta utzi zutenik lagun arteko harreman ona mantendu dute. Horregatik, ikusi orduko elkar agurtu dira bi muxu emanez eta hizketan hasi dira. Mikelek dagoen tokitik dena ikusi du eta haserre bizian dago. Hortik denbora gutxira Udane Mikelengana itzuli denean, Mikelek honakoa esan dio: “Gurea amaitu da, *** zara”.

Iturria: (12). Moldatua.

## 3. KASUA

Unai eta Sarak urtebete daramate elkarrekin ateratzen. Unaiek 18 urte ditu eta Sarak, berriz, 14 urte. Txikitatik ezagutzen dira auzo berdinean bizi eta hezi baitira.

Unaiek sexu-harremanak eduki nahi ditu Sararekin, baina Sarak zalantzak ditu. Elkar maite dira eta oso ondo pasatzen dute elkarrekin, baina Sara ez dago ziur Unaiek eman nahi duen pausoaz eta ez daki norekin hitz egin gai horren inguruan. Izan ere, beraien harremanean urrats garrantzitsua dela iruditzen zaio eta denbora behar du bere lehenengo sexu-harremana Unaiekin izatea nahi duen erabakitzeko.

Egoera horren aurrean, Unai haserretu egin da. Berarekin sexu-harremanak ez baldin baditu eduki nahi maite ez duenaren seinalea dela esan dio. Gainera, Unaiek ez du gehiago itxaron nahi eta Sara presionatzen ari da.

Egunak aurrera doazen heinean, Sarak lagunei azaldu die gertatutakoa eta lotsarazita negarrez joan da etxera. Unaiek ez dio sekula behartu egin nahi ez duen zerbait egitera.

Sarak ez daki zer esan. Beste behin ezetz esaten badio Unaiek harremana apurtuko duenaren beldurra du. Gainera, azken aldian, behin eta berriro esaten dio berarekin sexu-harremanak eduki nahi ez baditu beste neskaren batekin izango dituela.

Iturria: (32). Moldatua.

**GALDERAK:**

- Gaitzespenen aurrean, nola uste duzu sentitu dela neska?
- Mutilak zer lortu nahi du bere haserrealdiarekin?
- Zergatik jardun du horrela mutilak? Eta neskak?
- Neskak mutilarengatik aldatu behar dutela iruditzen zaizu?
- Zer egingo zenuke neskaren lekuan egonda? Eta mutilaren lekuan egonda?
- Zer irtenbide proposatzen dituzu gatazka konpontzeko?
- Zein harreman mota dela esango zenuke? Zergatik?
- Harreman osasuntsua dela iruditzen al zaizu? Zergatik?
- Harreman mota horrek etorkizuna duela iruditzen zaizu?
- Ezagutzen al duzu zure ingurunean horrelako egoera antzekoren bat?
- Egoera hauek genero indarkeria kontsideratzen dituzu? Zergatik?

Iturria: (32). Moldatua.

**4. GAIA – 18. Jarduera: *"Autoezagutza".***

▶ Ondorengo orri honetan dauden bi taulak bakarka bete zintzotasun osoz. Batak, norbanako bakoitzaren irudia isladatuko du eta besteak, bikotearena. Galderak erantzun ostean, nahi duenak aukera izango du idatzi duen zerbait talde handiari komunikatzeko eta eztabaida giroa sortzeko.

| NOLAKOA NAIZ? |
|---|
| **Zeintzuk dira inorengandik aldatuko ez ditudan baloreak? Zergatik? Arrazoitu zure erantzuna.** (*Adib:* autonomia, ardura, esker ona, konpromezua, konfiantza, enpatia, berdintasuna, laguntasuna, errespetua, etab.). |
| **Aldatuko ez nituzkeen (behartzen banaute) zein zaletasun ditut?** |
| **Zeintzuk dira nire ohiko lehentasunak?** |
| **Zer gustatzen zait nitaz, eta errespetatzea nahi dut? Zergatik?** |
| **Zer gustatuko litzaidake aldatzea nitaz? Zergatik?** |

Iturria: (32). Moldatua.

| NIRE BIKOTEAK NOLAKOA IZAN BEHAR DU? |
|---|
| **Nire bikotekideak honako balore hauek izan behar ditu.** (*Adib:* autonomia, ardura, esker ona, konpromezua, konfiantza, enpatia, berdintasuna, laguntasuna, errespetua, etab.). |
| **Nire bikotearen zaletasun hauek errespetatzeko prest nago:** |
| **Nire bikoteak honako lehentasun hauek edukitzea edo nirekin partekatzea nahi dut:** |

Iturria: (32). Moldatua.

**4. GAIA – 19. Jarduera: “3, 2, 1...Prest!”.**

▶ Talde txikietan elkartu eta jarraian erabilgarri dituzun osagaiekin zuretzat osasuntsua den errezeta bat eratu. Osagaiak aukeratu eta hauek sukaldatzeko erabiliko duzun kopurua eta denbora adierazi. Errezeta prest dagoenean, talde handiari erakutsi eta azaldu urratsez urrats egindakoa.

| | |
|---|---|
| Errezetaren izena | |
| Sukaldarien izenak | |
| Osagaiak | · Errespetua<br>· Konfiantza<br>· Jelosiak<br>· Komunikazioa<br>· Autonomia<br>· Kontrola<br>· Mehatxuak<br>· Maitasuna<br>· Isolamendua<br>· Enpatia<br>· Askatasuna<br>· Beldurra<br>· Lotsa<br>· Erantzunkidetasuna<br>· Pasioa<br>· Ekitatea |
| Elaborazioa: | |

▶ **Adibidea.**

| | |
|---|---|
| Errezetaren izena | Mahastia |
| Sukaldarien izenak | Aiora Jaunarena |
| Osagaiak | · ½ errespetua<br>· 500 g konfiantza<br>· 1 L komunikazioa<br>· ¾ erantzunkidetasuna<br>· 700 g autonomia<br>· Pasio, maitasun eta enpatia zurrusta iraunkorra |
| Elaborazioa:<br>– Osagai guztiak batera nahasten dira; pasioa eta maitasuna izan ezik. Ore jariakorra lortu arte nahastu osagaiak, pinportarik geratu gabe.<br>– Garrantzitsua da osagai guztiak nahasteari behar duen denbora eskaintzea, bestela bizkotxoak ez du gustu ona izango.<br>– Jarraian, labera sartu 230 ºC 35 minutuz. Labean sartu ostean, 10 minututik behin begiratu dena ondo doan.<br>– Ondoren, labetik atera eta hozten utzi.<br>– Azkenik, pasioz eta maitasunez hautseztatu. | |

Iturria: (31). Moldatua.

**18. Eranskina | 5. Gaiko jarduerak**.

**5. GAIA – 20. Jarduera:** ***"Baliabideak ezagutzen".***

▶ Demagun zure gertuko norbait genero-indarkeria jasaten ari dela eta zuregana jo duela laguntza eske etsita. Zer egingo zenuke laguntzeko? Norengana joateko aholkatuko zenioke?

**IDEIA ZAPARRADA:**

| |
|---|
| |

Iturria: propioa.

**5. GAIA – 21. Jarduera:** ***"Baliabideak barneratzen"*.**

▶ Talde txikietan elkartu eta eman zaizun gidaliburua irakurri 10.orrialdera arte. Ondoren, emakumearen aurkako indarkeriaren aurrean jarduteko dauden aukerak adierazi puntuka. Azkenik, talde handira helaraziko da gaia eta agente bakoitzak bere parte hartzea adieraziko du eta horren inguruko informazio sakonagoa helaraziko dizue. Gidaliburua: *Zer egin emakumearen aurkako indarkeriaren aurrean?*

| |
|---|
| |

Iturria: propioa.

**5. GAIA – 22. Jarduera: "Nola jokatu?".**

▶ Talde txikietan elkartu eta egokitu zaizuen kasua irakurri ostean, hausnartu amaierako galderak. Ondoren, talde handiari helarazi erantzunak.

**1. KASUA**

Itsasok (14 urte ditu) eta Josuk (16 urte ditu) lau hilabete daramate elkarrekin ateratzen. Urnietako herriko festak iritsi dira eta elkarrekin daudenetik kointziditzen duten lehenengo festak dira.

Larunbat gauean bikoteak bakoitzaren kuadrillarekin afaldu ostean, txosnetako kontzertuan topatu dira. Itsasok Josu ikusi duenean muxu bat ematera hurbildu da, baina Josuk burua kendu eta hoztasunez hitz egin dio: lagunekin ondo pasatzen ari dela eta bakean uzteko esan dio. Itsasok horrela hitz egiten dion azken aldia izan dadila eskatu dio, ez diola ezer egin berari horrela hitz egiteko, agurtu besterik ez ziola egin nahi.

Josu, hori entzutean, haserre bizian jarri da eta bultza egin dio Itsasori, ia-ia lurrera bota duelarik. Josuren lagun batzuk Itsasorengana hurbildu dira laguntzeko asmoz, baina Itsaso negarrez joan da lagunengana.

**GALDERAK:**

- Itsaso izanda, zer egingo zenuke? Nora edo norengana joko zenuke? Justifikatu erantzuna.
- Itsasoren edo Josuren laguna izanda, zer egingo zenuke? Nora edo norengana joko zenuke? Justifikatu erantzuna.

**2. KASUA**

Amaiak 14 urte ditu bere mutil laguna den Iraitzek bezala. Sei hilabete daramate elkarrekin ateratzen eta ordutik Amaia asko aldatu da.

Amaia neska alaia, jatorra eta kirolaria da. Saskibaloia izugarri gustatzen zaio eta herriko taldean jolasten du. Ikasle bikaina da, hizkuntzetan batez ere; ingelerako eta alemanierako klaseetara joaten da eskolako orduez aparte. Denbora justua izaten duen arren, lagunekin ateratzeko beti izaten du tarteren bat.

Iraitz Amaiaren alboko herrian bizi da, Andoainen. Amaiaren antzera kirola gustuko du eta futbolean aritzen da. Ikasketei dagokienez, ordea, alper samarra da; nahiago du lagunekin geratu.

Andoaineko herriko festetan ezagutu ziren eta ordutik Amaia izugarri aldatu da. Ingelerako eta alemanierako klaseetara joateari utzi dio, lagunekin gero eta gutxiago geratzen da, nota txarrak ateratzen ari da kontzentratzeko arazoak dituelako, etab.

Saskibaloiko entrenamenduak ez ditu galtzen, baina ez da maila ona erakusten ari; burua hor nonbait galdua duelako.

Horren guztiaren atzean Iraitz dago. Amaiari egunero adierazten dio bere maitasuna, baina bere ohiko bizimodua burutzea eragozten dio xantaia eginez: bakarrik sentitzen dela, ez diola kasurik egiten, ez diola maite, lagunekin denbora gehiegi pasatzen duela, etab. esaten dizkio.

Egoera horren aurrean, Amaia errudun sentitzen da eta berarekin geratu beste aukerarik ez du ikusten. Batzuetan lagunak eta gurasoak bere kontra daudela iruditzen zaio eta harregatik, Iraitzengana oratzen da. Bestetan, aldiz, Iraitzen portaera berekoia dela iruditzen zaio eta bere bizitza alde batera uzten ari dela berarengatik.

**GALDERAK**

- Amaia izanda, zer egingo zenuke? Nora edo norengana joko zenuke? Justifikatu erantzuna.
- Amaiaren edo Iraitzen laguna izanda, zer egingo zenuke? Nora edo norengana joko zenuke? Justifikatu erantzuna.



# EBALUAKETA

## 19 – 21. ERANSKINAK

**19. Eranskina |** Talde-dianari bideraturiko ebaluazio galdetegia.

▶ Galdetegi honen bidez genero-indarkeriaren inguruan jaso duzun osasun-hezkuntza proiektuari buruz duzun iritzia jaso nahi da. Baloratu ondorengo alderdiak.

**JARRAIBIDEAK**

- Markatzeko, bete laukia erabat.
- Adierazi balorazioa eskala honen arabera:

| | |
|---|---|
| **1** Ez nago batere ados | **4** Nahiko ados nago |
| **2** Ez nago ados | **5** Erabat ados nago |
| **3** Hala-hola | **ED/EE**: ez dakit/ez dut erantzun |

| **PROZESUA** | **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **ED/EE** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Iritzi orokorra ona da. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 2. Saio guztietara joan naiz. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 3. Gogotsu parte hartu dut jarduereta n. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 4. Landutako jarduerak nire gustukoak izan dira. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 5. Jarduerak nire gustukoak izan dira. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 6. Eskuratu ditudan ezagutzak eguneroko bizitzarako baliagarriak dira. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

| **EGITURA** | **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **ED/EE** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Materiala** | | | | | | |
| 1. Materiala egokia izan da jarduerak gauzatzeko. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| **Ingurunea** | | | | | | |
| 2. Instalazio fisikoak aproposak izan dira. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| **Ordutegia** | | | | | | |
| 3. Taldeen antolaketa egokia izan da. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 4. Osasun-hezkuntzaren iraupena egokia izan da. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 5. Saioen iraupena egokia izan da. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 6. Jardueren iraupena egokia izan da. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 7. Saioak burutzeko ordutegia zuzena izan da. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| **Osasun-agenteak** | | | | | | |
| 8. Saioetan parte hartu duten hezitzaileekin pozik nago. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Erizaina | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Orientatzailea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Gizarte laguntzailea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Udaltzaingoa | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

**Aipatu gehien gustatu zaizkizun hiru jarduerak:**

**Aipatu aldatuko zenituzkeen hiru alderdi:**

| |
|---|
| |

**Oharrak:**

| |
|---|
| |

Iturria: Observatorio para la Calidad de la Formación en Salud. Cuestionario de satisfacción del alumnado participante en una actividad formativa [Internet]. 2012 [kontsulta data:2018ko apirilak 9]: 1-4. Eskuragarri: https://www.juntadeandalucia.es/agenciadecalidadsanitaria/formacionsalud/export/sites/default/galerias/aportesDocumentos/pildora/Cuestionario_satisfaccion_alumnado_eValua.pdf. Moldatua. Egینkizun propioa.

**20. Eranskina** | Osasun-agenteei bideraturiko ebaluazio galdetegia.

▶ Baloratu osasun-hezkuntza proiektuaren inguruko alderdi hauek.

**JARRAIBIDEAK**

- Markatzeko, bete laukia erabat.
- Adierazi balorazioa eskala honen arabera:

| | |
|---|---|
| **1** Ez nago batere ados | **4** Nahiko ados nago |
| **2** Ez nago ados | **5** Erabat ados nago |
| **3** Hala-hola | **ED/EE**: ez dakit/ez dut erantzun |

| **HELBURUAK** | **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **ED/EE** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Aldez aurretik adierazitako helburuak bete dira. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 2. Aurreikusi gabe zeuden ondorioei erantzuna eman zaie. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 3. Ondorioei emandako erantzuna egokia izan da. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

| **PROZESUA** | **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **ED/EE** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Ikasleak itxarondako profilari egokitu dira. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 2. Ikasle kopurua egokia izan da. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 3. Ikasleen saioetara bertaratu dira. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 4. Ikasleen parte hartzea egokia izan da. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 5. Landuko edukia egokia izan da. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 6. Jarduerak burutzeko teknikak zuzenak izan dira. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 7. Jarduerak egokiak izan dira ikasle taldearentzat. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 8. Jarduerak era egokian aurkeztu eta gestionatu dira. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 9. Jarduerak aurreikusitako denboran gauzatu dira. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

| **EGITURA** | **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **ED/EE** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Materiala** | | | | | | |
| 1. Jarduerak burutzeko eskainitako material didaktikoa egokia izan da. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| **Ingurunea** | | | | | | |
| 2. Instalazio fisikoak aproposak izan dira. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| **Ordutegia** | | | | | | |
| 3. Nire esku hartzearen aurretiko informazioa nahiko denborarekin jaso nuen. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 4. Nire esku hartzeari eskainitako denbora egokia izan da. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 5. Nire parte hartzeari aurreikusitako ordutegia errespetatu da. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 6. Osasun-hezkuntzaren iraupena bidezkoa izan da. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 7. Saioak burutzeko ordutegia zuzena izan da. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 8. Saioen iraupena egokia izan da. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| 9. Jardueren iraupena egokia izan da. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| **Osasun-agenteak** | | | | | | |
| 10. Beste hezitzaileekin esku hartu baduzu, baloratu: | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Erizaina | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Orientatzailea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Gizarte laguntzailea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Udaltzaingoa | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

**Iradokizunak eta ekarpenak:**

| |
|---|
| |

Iturria: Observatorio para la Calidad de la Formación en Salud. Cuestionario de satisfacción del docente participante en una actividad formativa. [Internet]. 2012 [kontsulta data:2018ko apirilak 9]:1-4. Eskuragarri:https://www.juntadeandalucia.es/agenciadecalidadsanitaria/formacionsalud/export/sites/default/galerias/aportesDocumentos/pildora/Cuestionario_satisfaccion_docente_eValua.pdf Moldatua. Eginkizun propioa.

**21. Eranskina |** Ikasleei zuzenduriko amaierako ebaluazio galdetegia**.**

▶ Irakurri eta aztertu honako kasu hau galderei erantzunez.

**1. KASUA**

Izarok eta Xabierrek sei hilabete daramate elkarrekin. Izarok 14 urte ditu eta Xabierrek, aldiz, 15. Beraien artean afinitate handia dago, asko maite dira eta zaletasun ugari partekatzen dituzte. Azken aldian, ordea, Xabier nahiko jenio txarrarekin dabil, edozer huskeriagatik haserretzen da Izarorekin: berarekin nahiko denbora ez duelako igarotzen, bere lagunekin hitz egiten duelako, etab.Gatazkak gero eta larriagoak ari dira bilakatzen, Xabierrek ez ditu bere hitzak neurtzen eta oihuka erantzuten dio Izarori askotan. Hori gutxi ez balitz, eskolako orduetan bultzada bat edo beste ere eman izan dio.

Azken astean herriko festak izan dira eta bakoitza bere lagunekin ibili den arren, elkarrekin partekatu dituzte gaueko hainbat momentu. Izaro dantzatzen ibili da Xabierren lagunekin eta alderantziz. Xabier, ordea, Izarorekin haserretu da bere lagunekin dantzan ibiltzeagatik eta gau osoan ez dio jaramonik egin; are gehiago, ohi baino gehiago edan du eta berarengan interesa duten neskei atentzioa deitzen ibili da gau osoan zehar.

Haserrealdiaren ondoren, Xabier lotsatu egin da bere konportaeraz, barkamena eskatu dio Izarori eta berriro ez dela gertatuko hitzeman dio. Hala ere, bere horretan jarraitzen du Xabierrek eta Izarok ezin du egoera horrekin gehiago. Gainera, bere lagunek argi esan diote Xabierrekin harremana hausten badu, neska asko egongo direla bere atzetik eta berehala bilatuko duela beste neskaren bat. Beste lagun batzuk, ordea, bere egoera ulertzen dutela aitortzen diote.

Iturria: propioa.

**GALDERAK:**

- Zein indarkeria mota antzematen da? Zein indarkeria gauzatzeko arriskua egon daiteke?
- Zein dira indarkeria horren adierazleak?
- Osasunean eragingo dioten zein ondorio jasan ditzake Izarok?
- Harreman mota hau, maitasuna dela esango zenuke? Zergatik?
- Harreman mota hauek etorkizuna dutela iruditzen zaizu? Zergatik?
- Maitasun idealaren kontzeptua nabarmentzen al da?
- Zer iruditzen zaizu Izaroren portaera? Eta Xabierrena?
- Bikotea izanda, ezin al da beste pertsonekin dantzatu? Zer iritzi duzu horren inguruan?
- Zer egingo zenuke Izaroren lekuan egonda? Eta Xabierren lekuan egonda?
- Inguruko lagunek, Izarori eragiten diote hartu nahi duen erabakian? Zergatik?
- Izaroren laguna izango bazina, zer aholkatuko zenioke? Eta Xabierren laguna bazina?
- Zer konponbide emango zenioke harreman honi (izango balu)?
- Norbaitengana joko zenuke? Norengana? Zergatik?

Iturria: propioa.